



2019-III-7
1091 zkia.

M
8

2 mó progresibo
erreflexuen aurkako leiarrekin

229€

(bat eguzkitakoa izan daiteke)



Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com   



Informatizando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA. EIBAR ETA ELGOIBARREN.

TABERNETAN



30

PANTAILA

KARTELERIA DIGITALA



HARATEGIETAN



OKINDEGIETAN

ZINEMETAN



HARREMANETAN JARTZEKO

WWW.INFORMATIZANDO.EUS

943 15 06 22

...eta kitto!-ren

itzulpen

zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelarrera,
gaztelerratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.eus



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabiak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eskutitzak

– Gutun irekia Ana Telleriari (P\$Eren zinegotzia) –

Sozialista baten alaba naiz. Aita bi urtez izan zuten Santanderreko espetxean, heriotzara kondenatuta, gauero bere azkena izango izango ez zen esperoan. Heriotza zigorra indultatu ziotenean, Duesoko penalera (Berria-Santoña) eraman zuten eta, han hainbat urte eman ondoren, Eibarrera ekarri zuten, Bidebarrietako blokeak eraikitzea, beste hainbeste preso moduan. Preso horiek eraiki zuten Errealgo Merkatu Plaza ere, zuek inolako lotsarik eta memoriarik gabe bota zenuten hori. 18 urte zituela ekin zion militantziari, eta 80 urtez eutsi zion, hil arte.

Sozialista horiek Pol-Polean elkartzen ziren, klandestinitatean. Asko zaintzen zuten nori eman propaganda, edo nori esan kontaktu sozialistak zirela. Gero Alderdi Sozialista legezatu zuten. Garai artan Obreroa ere bazen (PSOE), gero Obreroren O hori galdu zuten, eta orain... orain Sozialistaren S-ri ere eusten diote, bestela PE baino ez litzaiekelako geratuko (Partido... E horrek berdin balio die España zein Euskadi esateko).

Urteak pasa ahala, gero eta erretxinduago itzultzen zen etxera, kezkatuta, Herriko Etxean gero eta "trepa" gehiago ikusten zituela-eta. Klandestinitatean geratuta ere ez ziren egiten; baina, legalizazioarekin, poltronak hartzeko aukera ikusi zuten. Gogoan dauzkut "trepa" horietako batzuren izenak: bizirik daude batzuk, beste batzuk dagoeneko hil egun dira.

Horrekin guztiarekin esan nahi dizut nik sozialismoa etxean jaso dudala (ez zuk bezala: ondo diozun moduan, hemen denok ezagutzen gara). Benetako sozialismoa, eta ez esne-berbetakoa. Baina zuk, eta beste horrenbestek, ez dakizue zer den hori. Poltronaren bidez iritsi zarete sozialismora (azken urteotan kolokazio-enpresa dirudi). Zuk ez duzu sozialismoa defendatzen: gure aita bezalako gizon-emakumeak ziren sozialismoa defendatzen zutenak, ideia batzuen alde borrokatu eta, batzuen kasuan, bizia ere emateraino.

Zu bezalakoek zikindu egiten duzue gure aita bezalakoen memoria, ideia horien alde borrokatu zutena. "Socialismo" hitzaren jabe egin zarete, bere esanahia desitxuratu duzue, eta borroka hura zikintzen diharduzue.

Niri buruz egin dituzun iruzkinak berresten didate bide onetik noala, ondo ikasi nuela gure aitaren legatua (DNAn daramat). Borroka egin beharra dago: irregularitasunen aurka, izan urbanistikoak zein beste edozein motatakoak; mozkinen trukeko ilegaltasunen aurka; eta beste askoren aurka. Euren onura baino bilatzen ez duten lotsagabekoan aurka (hori bai, euren esanetan guztien onerako dihardute!).

Zugatik, aitxa, eta borrokako zure lagun guztiengatik.

Mariasun Gartzia (sozialista gisa borrokatu eta bizi izan zen baten alaba)

– Eskerrak emanez –

Berto honekin nahi dugu
Zuei eskerrak luzatu
Aspacetik Ipuruako
Jubilatuei eskertu
Hamaiketako ederraz
Ahal izan genun ospatu

Ta gero arratsaldean
Desfilatzea tokatu
Horretarako laguntza
Guk egin genun eskatu
BM, udaletxea ta
Gurasoen hainbat esku

Zuek gabe ezingo zen
lortu genuena lortu
eskerrik asko guztioi
guk egin genun gozatu.

Eibarko Aspace eskola

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MENDEL.- Mehea, makala. "Mengela urten detsa soiñeku horrek".

MENTAU.- Arbolak eta landareak txertatu. **Eztittu.** "Fruturako arbolak mentau biharra izaten dabe".

astean esanak

"Lau gutxi da. Langile gehiago ya" erabiltzen dugun leloaren atzean dagoena hori da: lau oso gutxi dela. Pentsa, askotan hiru kamioi handitan iristen garela ikusten du jendeak; eta ikusgarria da gu iristen garenean, baina jendeak ez dakiena da hiru kamioi horietan lau lagun goazela. Sute baten kasuan, koordinazio lanak egiten ditu kaboak, kamioien ardura hartzen du suhiltzaile batek (ura itxi eta ireki, mahukak kontrolatu...), eta bi sartzen gara suteari aurre egitera, jendea erreskatatzera... Zorionez ez da sute larririk izaten"

(JOSU MERINO, SUHILTZAILEA)

"Dantza ez da kiroltzat jotzen eta ez du kirolak duen azpiegitura sarrerik, ez babes instituzionalik. Kirola modu lehiakorrean ulertzen da nagusiki. Kirolaren bidez emakumeen gizonekiko gutxitasun konplexua eta gizonezkoen nagusitasunarena indartu eta naturalizatu egiten da. Baina kontuz, gizonezko gehienek ez dute inoiz dantza egingo; ez dira emakumeak trabatuta dauden jardueran arituko, ez dira gutxiago direla agerian jarriko dituen umiliaziotik pasa beharko. Hala ere, Gipuzkoan astero 10.000 lagun aritzen dira euskal dantzan. Eta badira balleta, modernoa, garaikidea... beste dantza motak"

(OIER ARAOLAZA, DANTZARIA)

"Aranbururen liburua literatura utzi eta neurgailu moral bihurtu zaigu. La Sextako *Salvados* saioan independentistek kolpistik deitzea lagungarria ote den galdegin zionean Évolek Alfonso Guerrari, honen arropostua berehala etorri zen, *Patriako apeza bezala ari zara* esanez. Nobela bikaina dela adieraztean, erreguka jar zitzaion Évole Guerrari berriz ere demokraten komunitatean onar zezan. Hor dago gaur egungo ezker jakin baten problema nagusia: jarrera eskuindarrei, are jarrera ez demokratikoei erantzuten saiatzen zaie alde zurretik eskuinak ezarritako markoa eta erreferentziak onartuta"

(SANTI LEONE, ZUTABEGILEA)

Bixar hasiko dittue Araneko horma konpontzeko lanak

Udaletik jakiñarazi dabenez, bixar hasiko dira Arane kalian mendi-magala egonkortzeko lanak. Urtarrillaren 28xan gertatutako luperixa batek eraginda, menditik errepidera lurra jausi zan eta harrezkero errepidia itxitta dago. Udalak lurren jabiekin hainbat billera egin dittu, arazuari konponbidia billatzeko asmuarekin eta, azkenian, jabiak obraren proiektua aurkeztu dabeanian, lanak hastia erabagi dabe. Esandakuaren arabera, okerrik ez bada behintzat, lanak bost edo sei astean amaittuko dittue eta orduantxe zabalduko dabe atzera be errepidia.



Aho-hortzen Osasunaren Jardunaldixak Eibarren egingo dira



Martxuaren 15ian Aho-hortzen Osasunaren Jardunaldixak hartuko ditu Eibar Ospitaleak. Aurtengoa Debabarreneko ESik (Osakidetza) antolatzen daben bosgarren ediziñua da, eta naziñoarteko bigarrenena. Bertan parte hartuko daben adituak osasun esparru horrerri buruzko gai desberdiñak landuko dittue: odontopediatria, odontologia eta luarekin lotutako arazuak, interakziño farmakologikuak,

ahoko minbizixa eta endodonzia, bestiak beste. Horrekin batera, Jose Ramon Fernandez Ruiz Haurren Hortzak Zaintzeko Programako (PADI) zuzendarixak EAEn egindako laugarren inkestaren datuak azalduko dittu. Jardunaldixak Debabarreneko ESiko Maitena Urberuaga medikuak antolatu dittu, Lehen Arretako profesionalen etenbarriko formakuntza premiñeri erantzuteko.

Azittain-Maltzaga bidegorrixaren obria inaugurau dabe

Martitzenian inaugurau zittuen Azittain-Maltzaga bidegorrixaren lanak alkatiak eta Marisol Garmendia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketakoko foru diputatuak. Eibar eta Elgoibar batuko dittuan bidegorrixak ixa bi kilometroko tartia beteko dau eta biharrendako aurrekontua 5,1 millioi eurokoa da, bestiak beste bidegorrixa eraikitzeke daguazen zailtasun teknikuengaittik. Izan be, bidegorrixa bost pasabideke osatuko dabe, horretako bi 80 metro baiño gehixagokuak.



**DAMIANA ETA LIDIA
MANDIOLA ANSUATEGUI**
2019ko martxoaren 2an hil ziren



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

Euren aldeko IRTEERA MEZA egingo da hilaren 17an (domekan), 12.00etan, San Andres parrokian



Sardiñaren entiaruarekin agur Aratostieri

Urtero lez, sardiñaren entiarru txikixarekin agurtu genduzen Aratostiak martitzenian, datorren urtera arte. Aurretik, baiña, umiak ederto pasau eben arratsaldiaren lehen zatixa, Astixakuak antolatutako jolasetan. Eta Adolfo Jainagaren trikitalixak lagunduta sardiñarekin kalejiran ibilli eta gero, umiak zein helduak ixa gaberaiño dantzan jardun eben karpan, Arima Cool Tour taldekuak ipiñittako musikaren erritmora.

Aratostietako lehiaketako irabazlia

Aratostietarako antolatu dogun argazki lehiaketako irabazlia Izaskun Bustindui izan da, e-mailez bialdu deskun erretra-tuarekin: Katu Kale tabernan egindako argazkixan tabernaren dekoraziñua ikustiaz gain, txipiroi txikixak haundixa fin-fin zelan "dekoratzen" daben ikusi leike. Zorionak!



autuan

ESKURSIÑUA ETA OMENALDIXA

Untzagako jubilatutako etxe-kuak San Asensio eta Logroñora eskursiñua antolatu dabe hillaren 15-16rako, Haroko Enologia-estaziñoko teknikuak dan Pedro M^a Puras enologuak zuzenduko daben kata egitteko. Eta, bide batez, zentruko zuzendari-ohia ez eze antolatzen dittuen ekitaldixetan laguntzen ere jarduten daben Mateo Guilabert omenduko dabe, bere 90. urtebetetzian. Izena emoteko bulegora jua bihar da (140 euro).



LORE, LANDARE ETA ZUHAITZ AZOKA Eibarko Urkizu plazan

Martxoaren 16an

09:00-14:00

TAILERRA 11:30ean



Euskarazko komunikabidiak babesteko diru laguntzen eredu barrixa adostu dabe

Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundixak eta Hekimen alkartiak euskerazko hedabidien jardueria diruz laguntzeko eredu barrixa aurkeztu eben astelehen goizian Donostian, Tabakaleran. Itunak 2019-2021 urtietarako balixo dau, eta Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundixak guztira 10,5 milioi euroko dirulaguntza emongo dabe, oin arte baiño 3,1 milioi euro gehixago. Akordiox horren bittartez, hortaz, euskal erakundiak euskerazko komunikabidien garrantzi estrategikua aitortzen dabe, sektoria egonkortzeko apustu sendua egittiaz gain.

Erakundien izenian, bertan izan ziran Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburua, Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Diputazioko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendarixa, Ana de Castro Bizkaiko Aldundiko Euskara zuzendarixa eta Joseba Perez de Heredia Arabako Aldundiko Euskara zuzendarixa. Euskerazko hedabidiak biltzen dittuan Hekimen alkartiaren izenian, bertan izan ziran Igor Astibia alkarteko arduraduna, Iban Arregi BERRIA Taldeko kontseillari ordekarixa, Iban Arantzabal Tokikom-eko zuzendarixa eta Lorea Agirre Jakin-eko zuzendarixa.

Hekimeneko Igor Astibia azaldu ebanez, "gitxiagotutako hizkuntza guztien berreskurapen eta normalizaziñorako komunikabidiak estrategikuek dira. Holan nabarmentzen dabe gaiaz dakiñen erakunde, eragille zein adituak. Izan be, hedabidiak hizkuntza komuniadaren leihuek dira: hortik transmititzen da komuniadaren beraren errealidadia, eta bertatik jasotzen dau komuniadade horrek alkarren eta munduaren barri". Hekimen alkartearen



Astelehenian Donostiako Tabakaleran egindako aurkezpenaren irudixa.

garrantzixa azpimarratzeko hainbat datu be emon zittuan: "Hekimenen barruan euskerazko 50 komunikabide baiño gehixago biltzen gara, 133 komunikaziño proiektu, sektoreko ia komunikabide guztiak".

Hekimeneko ordekarixak adierazittakuaren arabera, "orokorrian eta oindiok be deialdiko hainbat artikulutan ziheztu biharreko zenbait puntu gelditzen badira be, Hekimenen ustez Eusko Jaurlaritzak eta aldundixak landutako dirulaguntza eredu barri hori sektoriaren egonkortasuna bermatzeko pauso garrantzitsua izango da". "Berria" egunkaria deialdi horretatik kanpo geratu da eta itun berezixa adostu dau Jaurlaritzarekin. Bingen Zupiria Hizkuntza Politikarako sailburuek adierazi ebanez, "Berria egunkari nazional bakarra da eta ezaugarri berezixak ditu". Holan, 2019xan 2,3 milioi euro jasoko ditu, eta beste horrenbeste 2020xan eta 2021ian.



Gorka Errasti Bernedo
izango da Eibarko alkategaia

Gorka Errasti Bernedo
veñ el candidato a alcalde de Eibar

ehbildu

Martxuaren 15ian aurkeztuko dabe EH Bilduek hautagaitza

Datorren asteko barixakuan, martxuaren 15ian aurkeztuko dabe EH Bilduek Gorka Errasti Bernedo alkategaia, 18:30xetan Eibarko Bizikleta Plazan hasiko dan ekitaldixan. Ondoren Errastik bere ekipuaren aurkezpena egingo dau. Ekitaldixa musikarekin lagunduko dabe eta, amaieran, Bilgunian pin-txo eta edarixak eskinduko dittue.

asteko
300.000
datua


euroko dirulaguntza emon detsa Eusko Jaurlaritzak Eibarri, herrixan irisgarritasuna hobetzeko: 259.000 euro erdigunetik Jardiñetara doian igogailluan gastatzeko izango dira eta 41.000 euro, barriz, Eibarko Irisgarritasun Plan barrixa egitteko.


XABIER ALDABE AZKARGORTA

2019ko otsailaren 15ean hil zen



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen eta hain agur beroa eskaini zenioten guztioi.





Hasi da Asteklimako programaziñua

Udaleko Ingurumen arlokuak hainbat ekitaldi antolatu ditu atzo hasi eta hilla-ren 12ra arte garatuko dan Klima-aldaketaren Euskadiko lehen Astiaren harira. Eibarko Asteklima atzo abiatu zan, Unesco Etxearen "17 helburu gure mundua eraldatzeko" erakusketaren inauguraziñuarekin. Portalean martxuaren 27ra arte ikusgai egongo dan erakusketia martitzenetik domekara bittartian zabalduko dabe, 18:30xetatik 20:30xetara. Gaur, barriz, Elisa Sainz de Murieta Basque Centre for Climate Change - BC3 zentruko ikerlarixak hitzaldixa emongo dau klima aldaketiak Euskal Herrixan izan leikian eragiña azaltzeko. 18:30xetan hasiko da, Portalean. Domekan, 18:30xetatik aurrera, Portaleko aretuan Trokolo Teatrok "O me atiende ya, o me voy" ikuskizuna eskinduko dau (gazteleraz, sarrerria duan). Eta martxuaren 12xan, 19:00etan, Coliseo antzokixan Bonni Cohenek eta Jon Shenkek zuzendutako "Una verdad muy incómoda: ahora o nunca" dokumentala emongo dabe.

Zapatuan itxitta egongo da Astelena Haur Parkia

Udaletik aditzera emon dabenez, zapatu honetan ez dabe Astelena Haur Parkia zabalduko ez goizez ezta arratsaldez be, "frontoia-*ren egitura indartzeko obrak egitteko ipiñi eben garabixa kendu egin bihar dabelako*". Horrekin batera, garabixa desmontatzeko biharrak dirala-eta, goizaldeko 06:00etatik 15:00ak arte Isasi kalia trafikua errendako itxitta egongo da.

Fisika eta kimika ikasliak "Neskak Zientzian" ekitaldixan egon ziran

Aurreko otsaillaren 15ian Eibar BHI-ko fisika eta kimika irakasgaiko neska talde batek nanoGUNE-k antolatutako "Neskak Zientzian" ekitaldixan hartu eban parte. Lau egun aurretik Emakumia Zientzian egun internazionala izan zala eta, ekitaldixarekin neskak zientzian daken garrantzixa nabarmendu nahi izan eben. Ekitaldixa hasi baiño lehen, emakume zientzalarixak gizartian daken tokixaren inguruko galdera batzueri erantzun zetsen eta arratsaldian, barriz, nanopartikulekin (grafenoa, nanohodiak,...) zerikusixa daken esperimantu laburrak egin zittuen, puntako teknologiaz baliatuta. Horrekin batera bertan erabiltzen daben teknologixia ezagutzeko eta zientzalarixen egunerokotasuna zelakua dan ikusteko aukeria euki eben.



Oharkabean utzi gaituzu lagun, iloba ta arrebak, gure artetik joan zara ta hutsune bat geratzen da. Maite zaitugun guztiok orain jarraitu behar aurrera! Musu goxo bat jaso dezazun zuzenean masailera... Agur Iñaki, beste nunbaiten, noizbait elkartuko gera.

IÑAKI ARANBERRI AIZPURUA (2019-II-25)

**Sendikoen izenean,
ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera
joan eta samin-agurrak bidali
dizkiguzuen guztiok.**

Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Punjab lehorretik, Euskal Herri berdera



Arragueta kalean jatetxea dauka Warisek. Ekhi Belar

Pakistango lautadak utzi eta Euskal Herri menditsura etorri zen Mohammad Waris 2004an. Txikitatik egin izan du lan, familiaren beharren araber, eta jaioterria utzi zuen etorkizun oparoago baten bila. Ondo bizi ahal izateko toki aproposa aurkitu du Eibarren eta Pakistanen bizi den amaren falta somatzen badu ere, hara joateko aukera izan du hainbat aldiz.

Zenbakidun herrikoa

Pakistan ekialdeko Punjab probintzian jaio zen Mohammad Waris, Gujrat hiririk hurbil dagoen herrirka batean, Chak Sikandar 30-en. Bai, herriaren izenak 30 zenbakia dauka. "Horrek esan nahi du Chak Sikandar deitzen diren beste herri batzuk daudela, eta gurea 30. da". Oso toki laua da. "Eibartik ezin ditut Elgoibar edo Ermua ikusi, baina nire herritik hurbil dauden beste herriak ikusi daitezke".

Behi artean

Hiru anai eta bi arrebarekin hazi zen, "baina anai bat hil egin zen". Chak Sikandar 30-eko eskolara joan zen 6. mailara arte eta Kharianen, bere jaioterritik hurbil dagoen hirian, goi-mailako ikasketak egiteko aukera bazuen ere, laster utzi behar izan zuen eskola. "Ez nuen aukerarik eduki. Po-break ginen eta aitari lanean lagundu behar nion". Chak Sikander 30-en nekazari-tza da nagusi eta garia landatzen da batez ere, baina Mohammad Warisen aitak

behiak zituen eta eskola amaitu ondoren berarekin egin zuen lan. "Esnea saltzen genuen eta baita behiak ere".

Greziako abentura

Behiekin lan egin eta gero eraikuntzan egin zuen lan, baina 2003an maleta egin eta Pakistan utzi zuen Greziara joateko, anai bat bertan bizi zelako. "Bidaia luzea izan zen. Pakistandik Iranera joan ginen, handik Turkiara, Ziprera eta gero Greziara. Hala ere, zortea eduki nuen, 12 egunetan egin nuelako bidaia, beste batzuek hilabeteak behar izaten dituzten bitartean". Bizitza hobe baten bila joan zen Greziara, "dirua irabazi eta ahal den guztia etxera bidaltzeko", eta ez zitzaion lanik falta izan. Zentzu horretan ondo, baina Greziako hainbat gauza ez zitzaizkion gustatu. "Hemen poliziarik deitzen badiozu, berehala etortzen da; baina Grezian ez dizute jaramonik egiten, ez dago gobernurik".

Azpeitiko lehengusuarengana

Grezian ia urte bi egin ondoren Pakistanera itzuli zen lau hilabeterako. Paperak

اسلام علیہم
میرا نام محمد فادان ہے۔ میں سٹائن میر
دینا ہوں۔

**"Kaixo, Mohammad Waris
naiz eta Eibarren bizi naiz"**

konpondu eta berriz egin zuen alde. Kasu honetan, Azpeitira. "Nire lehengusua han bizi da eta lana edukiko nuela esan zidan". Eraikuntza enpresa bat dauka bere lehengusuak eta berriz ere aldamiara igo zen Waris. Kontua da Eibarrera asko etortzen zela, "Matsariako poligonoan lanean egon ginelako", eta Eibarren etxea alokatzeko aukera eduki zuenean gurera etorri zen bizitzera. "Eibar Azpeitia baino gehiago gustatzen zait, handiagoa delako eta denetarik dagoelako". Azpeitian eta Eibarren pozik egon da Waris. "Errespetu handiz hartu naute Euskal Herrian, oso jende ona bizi da hemen".

Eibarren cricketek ez

Emaztearekin eta sei seme-alabekin bizi da Eibarren. "Bi seme gazteenak hemen jaio ziren". Krisiaren ondoren eraikuntzan lana aurkitzea zaila egin zitzaion eta, nahiz eta eraikuntzan lan egitea sukaldean egotea baino gehiago gustatzen zaion, gaur egun kebab jatetxea dauka Arragueta kalean. Hala ere, zehazten du kebab ez dela Pakistango jakia, "turkiarra da". Warisek bestelako janariak jaten ditu eta Pakistango ohiturari eusten saiatzen da Eibarren egonda ere. Seme nagusiak errugbian egiten du, baina Warisi cricketa gustatzen zaio gehien. "Inguruko hainbat herritan, Azpeitia eta Bergaran adibidez, cricketean jokatu izan dugu, baina Eibarren ez dago tokirik".



Emakumeok PLANTO!!!

Emakumeen eskubideen aldeko borroka ezberdinak gogoratzeko eta eskubide horiek betetzea eskatzeko eguna da Martxoaren 8a eta aurten egun horretarako Greba Feminista deitu dute Euskal Herriko Mugimendu Feministatik eta Eibarren ere deialdiarekin bat egin du M8 Plataformak. Orain egun batzuk egindako agerraldian azaldu zuten, *"bost ardatzetan antolatzen da greba: pensionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da"*. Hala ere, zaintza grebari indar berezia eman nahi izan diote.

Eibarren egun osorako egitaraua prestatu dute, gauerditik bertatik hasita. Horrekin batera Untzagan gune informatiboa egongo da egun guztian. Hemen ekitaldien zerrenda: 08:00etan **emakume ikasleak ere greban gaude**; 10:30ean **kaleak hartu**; 12:30ean **elkarretaratzea** (mixtoa, emakumeak aurrean); 13:00ean **pikete feministak**; 14:30ean topa eta bazkari autogestionatua (bakoitzak berea ekar dezala); 17:00etan **zaintza tailerra**; 18:30ean **Irradaka dantza tailerra**; eta 20:00etan

manifestazioa, "Heterokapitalismo patriarkalari planto!" goiburuari jarraituz (mixtoa, emakumeak aurrean). Ondoren, **ekitaldia eta akelarrea** Untzagan.








Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak ere bat egingo du grebarekin, baina, horrez gain, martxorako beste jarduera batzuk antolatu ditu. Hasteko, martxoaren 12an, 18:00etan Portaleko erakusketa aretoan inauguratuko diren hiru erakusketa prestatu ditu: "Lanak etxean, hobe denon artean" izenekoak etxeko lanak banatzearen aldeko jarrerak sustatzea eta aldaketak sortzea du helburutzat. "13 + 1 Migrazio bideak eta zaintzak" izenekoan, berriz, "Zaindu zaintzaileak" tailerreko bizipenak azalduko dira. Lana Katia Hernandez Dominguezena da eta LUMATIKen laguntza dauka. Eta hirugarren erakusketa "Itsaspeko bihotzak" izeneko da. Areto literario honetan, genero berdintasunaren gaia lantzen da, euskerazko haur literaturaren bitartez. Horretarako Galtzagorri elkarteak hezkidetzat ardatz duen ibilbide artistiko-pedagogikoa diseinatu du eta, liburu jakin bat aitzakia izanik, hezkidetzarekin lotura

zuzena duen gai bat jorratuko dute umeekin, arte diziplina ezberdinak erabiliz aretoaren txoko bakoitzean. LHko 4. mailako haurrek bisita gidatuak egin ditzaten pentsatuta dago. Beraz, ikastetxeekin lotutako bisitak egingo dira, baina horrez gain familiarentzako saioa ere egingo dute martxoaren 12an. Parte hartzeko aurretik izena eman behar da Liburutegian. Juan San Martin Liburutegiak eta Berdintasun Zerbitzuak elkarlanean antolatu dute erakusketa. Hiru erakusketak hilaren 31ra arte egongo dira zabalik.

Martxoaren 21ean, berriz, Andretxearen 15. urteurrena ospatzeko saio berezia egingo da Portaleko ikastaro gelan, 17:00etatik 20:00etara: "Tupper sex feminista eta ipuin erotikoak" izenekoan *"emakumeei sexualitatea eta barrea (ber)eskuratzeko estrategiak eskainiko dizkigute Virginia Imazek eta Inma Merinok"*. Jarduera emakumeei zuzenduta dago eta doakoa izango da.

Eta, urtero lez, Juan San Martin Liburutegiarekin batera Martxoaren 8ko irakurketa-gida prestatu dute.

Nola egin grebarekin bat?

- 
2 Amantala (edota beste edozein tresna) balkoitik eskegiz zaintza lanak azalertzeko
- 
4 Herri eta hirietako mobilizazioetara joanez.
- 
6 Gure inguruan edo arloan greba antolatuz eta zabalduz.
- 
1 Lantoki eta ikasgeletan grebara batuz.
- 
3 Edonon zaudela besoko morea jantziz.
- 
5 Zaintzeari utziz, lan hori beste emakumeen esku utzi gabe, gizonek egin dezatela!
- 
7 Kontsumitzeari utziz, batez ere langileen esplotazioaren ikur diren enpresa handietan.

Gizonentzako gida

Euskal Herriko mugimendu feministak, martxoaren 8ko greba feministari begira, gizonentzako gida bat plazaratu du. Greban gizonentzako ekarpena zein izan beharko litzatekeen argitzeko. Emakumeak daude deituta grebara, beraz greba babestu nahi duten gizonentzako ardura nagusia zaintza lanez arduratzea da, eta ez mobilizazioetan parte hartzea.

Ondoren, puntuka, mugimendu feministak osatu duen gizonentzako gomendio sorta:

- Aita bazara zure seme-alabez arduratu eta eztabaida zein ikasle greba lagundu (guraso elkarteetan, eskolan...).
- Laguna bazara, zure lagunaren umeak zaindu ditzakezu.
- Enpresako nagusia bazara, enpresa itxi eta beharrezkoa bada zaintza kolektiborako espazioa irekitzea ahalbidetu.
 - Ikaslea edota irakaslea bazara, eskolara joango ez diren emakume* ikaskideak eta ikasleek lanuztea babestu eta eskolak zaintza komunitariorako espazio bilakatu.
 - Zure familian, elkarbizitza taldean edo inguru afektiboan zaintza behar duenik badago, has zaitez egun horretatik

aurrera ohituraz emakumeok* betetzen dugun lan horretaz arduratzen.

- Zaintza komunitariorako espazioak autonomoki sortu (lantegietan, eskoletan, gaztetxeetan, e.a.). Gizonek ardura hartu behar dute, helburua ez da emakumeen* laguntzaile izatea.
- Zure inguruko norbait zaintzeko soldatapeko emakume bat badago (haur, adindun, bizilagun e.a.) zure burua eskaini egun horretan lan egiteko.
- Emakume* batekin harreman sexu-afektiborik baduzu, martxoaren 8an kalean egoteko behar duen laguntza guztia emaitzatu.
- Zabaltu mezua zure lagun eta talde guztien artean. Militantea bazara, eraman zure eremu politikora.
- Ez kontsumitu. Batu zaitez kontsumo grebara.
- Greba egunaren aurretik eta ondoren beste gizonentzakoekin bildu zaitezke, maskulinitateen inguruan elkarrekin hausnartzeko, lan pertsonala eta kolektiboa egiteko, zuen pribilegioez kontzientzia hartzeko eta menderakuntzarik gabeko jendartea lortzeko bidean pausoak emateko.

Amatasuna

Ama izan nintzanean Amagoia izateari utzi nion. Galdera guztiak ume jaioberriari zuzenduak zeuden: "ondo jaten al du? Lo egiten al du? Osasuntsu dago?". Birkolokatze bat egin behar izan nuen neure buruan. Eta, ni, Amagoia, non nago? Nola nago? Ondo nago? Gure amonen eta amen eredia birplanteatzeko beharra sentitu nuen. Haiek beraien gurasoak, anai-arrebak, senarra, seme-alabak edota ilobak zaintzen pasatu dute bizitza osoa, beraien burua alde batera utziz. Askotan, gainera, ez zaie inolako aitortzarik egin eta esker onen zain geratu dira. Betiko. Haiek "nahi" zutelako jokatu zutela horrela esan ohi da, beraien "biharra" hori zelako. Eskerrik asko bihotzez, ama, ni hain ondo zaintzeagatik eta neure burua zaintzen erakusteagatik. Hala eta



Amagoia Gomez

Emakume askok heredatutako patua jarraitu dute. Gaur egun, parkean gehienok emakumeak gara; beraien zaintza lanaz mintzo diren emakumeak.

gutziz ere, emakume askok heredatutako patua jarraitu dute. Gaur egun, parkean gehienok emakumeak gara; beraien zaintza lanaz mintzo diren emakumeak. Nik hortik kanpo Amagoia sentitzen naizen lekuak topatzeko beharra izan dut. Ni neu naizen tokiak. Batukada Feminista, mendia, lagunak edota musika. Une horietan niri buruz hitz egiten dut. Nire beharrak asetzeko momentuak dira. Baina, horretarako lanketa bat egin behar izan dut, eta kritikak entzun. Gizonak BETI hartu izan ditu bere momentuak. Ez da horregatik inoiz epaitua izan. Emakumea, aldiz, beti dago jomugan. Martxoaren 8an, agertarazi ditzagun zaintzak plazara, eta borroka dezagun emakume guztiok munduan merezi dugun leku hori lortzeko. Garen hori zaindu eta maitatuko dugun tokia.

Ekilibristak

Ikusi nahi ez duenak baino ez du ikusiko: feminizatuak dauden alorrek askoz ere prestigio sozial, politiko eta ekonomiko txikiagoa dute; gure gizarte eredu honetan, zapalduenak, beti, emakumeak dira. Mila aldiz ohartarazi digute: pobreak emakume aurpegia du. Horregatik eta horren kontra egiteko, greba egingo dut bihar. Planto, emakumeok egiten dugun lana bistartzeko eta lan horri balioa ematea exijitzeko; planto, sokak estuen hartuta dituen emakumeengatik –egin kontu, emakume, zapalduok ere zapaltzaile izan gaitezkeela hainbatetan–; planto, eremu pribatua uste dena politikoa dela aldarrikatzeko, eta planto, jakina, alabaren etorkizunak bezainbeste kezkatzen nauelako semearenak, eta gizonak ere, sortzez pribilegio gehiago izan arren, beti ez direlako libre maskulinitate-eredu tradizionalaren pean.

Ez dut lan handirik izan bihar greba egin edo ez erabakitzeke, mugimendu feministak emandako arrazoiak neure egiten ditudalako lehenengotik azkenera, eta ez dut buruko min izan lantokian greba egingo dudala esateko (zorionekoa ni!), baina ez dut ukatuko: galderak, arazoak eta kontraesanak pilatu zaizkit, grebaz ari naizela: Era-



Ainara Argoitia

Ekilibristen pare gabiltza emakumeak, gure bizitza hipotekatuz gaur seme-alabak eta bihar nagusiak zaintzen. Bizitza sostengatzeko ardura, baina, denona da.

mango al ditugu seme-alabak bihar ikastolara? Zergatik ari gara grebari bai esan diogun emakumeok ohituraz geuk egiten ditugun lanak nola lotu aurretiaz pentsatzen? Zergatik dut horrenbeste erreparo laneko bilera 20:30ean hastea proposatu duen lankideari (gizona) ezetza emateko, kontziliazio-arazoak arrazoituta? Zergatik sentitu naiz errudun alaba amaginarrebarenean laga eta bi orduz kirola egitera joateagatik? Zergatik aztoratu du horrenbeste borrokalaguna 'Es compatible ser feminista y tener empleada doméstica' artikuluak?

Zaintza. Hortxe dago koska! Feminismoa benetan kontzientzia hartzean hasten baldin bada, ni ama naizenetik naiz feminista; ama-identitateak nire ordura arteko beste ni denak jan zituenetik. Orduan sentitu nuen neure bizipenak eta amatasuna bera politizatzen hasteko beharra. Orduan zaintza-lanei ikusgarritasuna eman beharra. Ekilibristen pare gabiltza emakumeak, gure bizitza hipotekatuz gaur seme-alabak eta bihar nagusiak zaintzen. Bizitza sostengatzeko ardura, baina, denona da. Gauza gutxik dute zaintzak besteko garrantzirik, eta bada ordua bizitza jartzeko erdigunean, merkatua beharrean.

Denontzako gizarte aske, justu eta parekideago bat aldarrikatu nahi dut

Aitortu beharra daukat, benetan, feminismoa zer den nire lanbideari (irakaskuntzari) esker ezagutu dudala. Eskoletan hezkidetzaren planak egitea eskatu ziguten, eta, horri esker, irakasle eta ikasleon arteko harremana, erabiltzen ditugun materialak, metodologiak, hizkuntza, curriculumak, eskolako espazioen antolaketa eta jai eta ospakizunetan hezkuntza-komunitate osoari transmititzen dizkiogun balore eta ereduak berraztertu genituela. Horrela, hezkidetzaren eta feminismoari buruzko jakinmina piztu zitzaidan. M8ko herri-plataforman parte hartzeko gonbitea jaso nuenean, ez nuen zalantzarik izan. Hor ere, lan eginez, ikasten jarraitzeko aukera paregabea niretzat.

Ibilbide guzti horri esker, garbi daukat Martxoak 8an protagonistak emakumeok* izan behar



Arantza Leiza

Egun horretan, nik ere esplotazioa, bazterketa eta zapalkuntza sortzen duen gaur egungo sistema politiko eta ekonomikoa salatzen nahi dut.

dugula, eta oker daudela emakumeon* berezitasunaren errekonozimendua bakarrik bilatzen dugula pentsatzen dutenak. Egun horretan, nik ere esplotazioa, bazterketa eta zapalkuntza sortzen duen gaur egungo sistema politiko eta ekonomikoa salatzen nahi dut. Nire ustez, arazoa ez da bakarrik gaur egungo gizartearen gizonak jaun eta jabe izatea, "klase-egituren" (sistema hierarkikoa) menpe bizitzea baizik. Pertsona guztiontzako gizarte aske, juxtu eta parekideago bat aldarrikatu nahi dut, eta garrantzitsua iruditzen zait soldatapeko zein doako eta ikusezinak diren emakumeok* egiten ditugun lan guztiak, egun batez, bertan behera uztea, injustizia, esplotazioa, bazterketa eta zapalkuntzaren adierazgarririk hoberenak baitira.



Uxue Igarza

Martxoaren 8an

Martxoaren 8an, emakume, trans eta bollerok kaleak hartuko ditugu. Ikaslee emakumeek* kaleak hartuko dituzte eta baita emakume* pentsionistek ere. Gure soldatapeko lanpostuak hutsik geratuko dira, eta ordaintzen ez dizkiguten lanak egin gabe. Martxoaren 8an, borroka feminista babesten duten negozioek, tabernek, dendek itxi egingo dituzte ateak. Martxoaren 8an, ez dugu kontsumituko; ez gatoz bat kontsumo eredu basati eta esplotatzaile honekin. Martxoaren 8an, grebara batu ezin diren emakumeek* amantala zintzilikatuko dute balkoietan eta martxoaren 8an, gure borroka-rekin bat egiten duten gizonen zaintza lanen ardura hartuko dute. Martxoaren 8an, bizitzak jarriko ditugu erdigunean.

Ez dakit zenbat izango garen, ez dakit zenbatek izango dugun greba egiteko aukera, ez dakit herria gelditzea lortuko dugun, baina, badaikit urtetik urtera gero eta gehiago garelako borroka honetara gehitzen garenak.

Faxismoaren susperraldi garai honetan, emakumeon* eskubideak berriro kolokan jartzearekin mehatxatzen gaituzte: abortu eskubidea, genero indarkeriaren legea... Epaitegiek, komunikabide handiek, "segurtasun" indarrek, gobernuek... ez gaituzte babesten; ez digute sinesten. Jipoitzen, bortxatzen eta erailtzen gaituzten bitartean, hau salatzeagatik zigortzen dute Mugimendu Feminista.

Urte osoan borrokan aritu arren, martxoaren 8an, Eibarko, Euskal Herriko eta mundu osoko emakumeek* kalera irtengo gara eta aurre egingo diogu sistema heteropatriarkal, kolonialista, kapazitista, eta kapitalista honi!

Batu borrokara!



Malen Illarramendi

Ze demontre!

Amaren sabelaren barruan nago. Bai goxo nagoela babesleku honetan! Ez dut hemendik irteten nahi! Neska jaioko naiz; hau zorigaitza! Kanpoko ahotsak barruraino iristen dira eta ez zait entzuten dudana gustatzen. Ez dut gustuko kanpoan aurkituko dudana neska izate hutsagatik. Ez dut hemendik irteten nahi!! Ez dut txikitatik printzesa banintz bezala tratatzea nahi, ezta arrosa kolorez jantzea eta panpinez inguratuta haztea ere. Ez dut beldurra izan nahi etxera bakarrik joaten naizenean, ezta kirola egitera ateratzen naizenean ere. Ez dut inork ni bortxatzea nahi; ez dut inoren menpe bizi nahi, ezta inork ni gutxiestea ere. Ez dut diru gutxiago kobratu nahi gizonezko batek egindako lan beraren truke; ez dut bikotekideak jo nagan nahi, ezta berea naizela pentsatzea ere. Ez dut inoren sexu-objektua izan nahi, ezta inork nire ordeaz erabaki dezan ere. Minigona jantzi nahi dut, inork pentsatu gabe probokatzen ari naizela eta horrek nahi duenerako eskubidea ematen diola. Mutila izatea litzateke konponbidea, erraza. Akabo aipatutako bidegabekeria guztiak! Baina nik neska izan nahi dut eta gizonezko guztiek dituzten eskubide berberak izan; eta horren alde borrokatu; eta ozen esan borroka hau ez dela emakumeon kontua bakarrik, gizarte osoarena baizik. Ze demontre! Martxoaren 8an jaioko naiz.

Zergaitik martxoak 8?

Simon de Beauvoirrek esan zuen krisi politiko edo ekonomiko bat nahikoa izango zela emakumeen eskubideak zalantzan jartzeko. Askotan oroituko gara iraultzaile frantsesaren hausnarketa horretaz hauteskunde eta promesa politikoz jositako urte honetan. Mugimendu atzerakoi eta ultra eskuindarren gorakadarekin, martxoaren 8a urteko egunik garrantzitsuena bihurtu da baldintza guztietako emakume askorentzat eta 2018an jarraitu zuten ildoak ikusiz, aurtengoa ez da gutxiago izango.

VOX-ek makina bat deklarazio egin ditu azken hila-beteetan feminismoaren, bai eta genero indarkeriaren edo abortuaren legearen kontra. Azken bi lege hauen indargabetzea eskuin muturreko formakuntzaren programan doa. PP-k gobernua lortuko balu Ciudadanosen eta Abascalen laguntzarekin, ondorioak latzak izango lirakeke emakumeentzat. Baina VOX eta PP soilik arazoaren parte txiki bat dira, izan ere, kapitalak emakumeen kontra eramaten



Asier Azkue

Mugimendu atzerakoi eta ultra eskuindarren gorakadarekin, martxoaren 8a urteko egunik garrantzitsuena bihurtu da baldintza guztietako emakume askorentzat eta, 2018an jarraitu zuten ildoak ikusiz, aurtengoa ez da gutxiago izango.

ariduen eraso mundu guztian gertatzen ari den fenomeno da, alegia, izaera internazionala du.

Kontua ez da jokoan dauden eskubideen zerrenda bat egitea, ondoren hauek banan-banan defendatzeko, baizik eta munduko emakumeak beraien elkarlaguntzaz urteko 365 egunak errebindikatibo egitea, eskubide guzti hauek beraien osotasunean defendatzeko, martxoaren 8a erreferentzia moduan. Borroka hau da eskuin muturreko alderdien ofentsibaren kontrako lehenengo lubakia eta 2018an ikusitakoarekin argi dago beldurra guztiz galdu dutela.

Gramscik idatzi zuen mundu zaharra hiltzen ez den eta berria jaiotzen ez den horretan agertzen direla munstroak. Berari ere ez zitzaion arrazoirik falta, horregatik hartu behar ditugu Simon de Beauvoirren eta sozialista italiarraren hausnarketak kontuan, hemendik denbora batera damutzerik ez badugu nahi. Emakumeek zuzentzen digute bidea.

Berdintasun legeak betetzen al dira?

Mendea joan mendea etorri naturaltzat hartu ditugu gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak —ezberdintasun kultureletaz ari naiz, jakina—. Jada, XXI. mendean gaude, eta, berdintasunari dagokionez, oraindik bide luzea dugu egiteko bizitzako esparru gehienetan, guztietan ez esatearren.

Kirolean, esate baterako, gizarteko testuingururik eragingarriaren batean, emakumeei ematen zaigun tratua gizonei ematen zaien tratu egokitik oso urruti dago oraindik. Hausnar dezagun apur bat.

Gaur egun, komunikabideetan eta sare sozialetan sasoi batean baino zertxobait gehiago ateratzen garen arren, kirol atalean berdintasun legeak betetzen al dira? EZ! Desoreka handia da. Ingurura begiratzea besterik ez dago ohartzeko emakumezkoen kirolak ez duela gizonezkoen kirolak besteko lekuri. Apenas agertzen gara hedabideetan; argi ikusten da hori albiste kopuruari erreparatzen diogunean, edo albisteen iraupenari dagokionez. Bestalde, oraindik mantentzen al dira



Arantza Mata

Emakume kirolari asko dago, gero eta gehiago zorionez, maila onekoak, ohorezko mailetan edota goi mailako txapelketetan aritzen direnak... baina gehienek ez dute aukerarik irtenbide profesional duin bat izateko; ezta klubak eta taldeak zuzentzeko ere.

gizonen eta emakumeen inguruan eraikitako kirol-estereotipoak? BAI! Generoari lotutako estereotipoak edozein albistetan oraindik ere onartu egiten ditugu, inongo hausnarketarik egin gabe.

Gaur, 2019ko MARTXOAK 8, EMAKUMEAREN EGUNA, bai! 2019. urtean gaude, baina garbi dago oraindik ere oztopo asko ditugula gainditzeko. Emakume kirolari asko dago, gero eta gehiago zorionez, maila onekoak, ohorezko mailetan edota goi mailako txapelketetan aritzen direnak... baina gehienek ez dute aukerarik irtenbide profesional duin bat izateko; ezta klubak eta taldeak zuzentzeko ere... Emakumezkoen presentzia, oro har, txikia baita kirolaren esparruari dagokionez.

Argi dago berdintasunaren alde borrokatzea guztion ardura dela eta norberak bere harri koxkorra jarri behar duela, gizarteko kirol-oztopoei aurre egitea nahi badiegu. Bidea luzea izango dela zalantzarik ez dago! Baina saiatu gaitzen gure gazte-txoei kirol-eredu eta estimulu egokiak txiki-txikitik eskaintzen, eta emakumezkoen lorpenak eta ahotsak azaleratzen. Denon artean lortuko dugu.

Sohaib Adiba, boxeolaria:

“Euskal Herrikoa izanda, oso eredu ona da Kerman Lejarraga”

Sohaib Adibak bere boxeoko ibilbideko borrokarik garrantzitsuena jokatu du zapatuan Soroluzeko kiroldegian 20:00etan. Adur Olaizola izango du aurkari eta, gauzak ondo eginez gero, gertuago edukiko du Sanjuanetan Astelena frontoian egiten den ekitaldian parte hartzeko aukera. Marokoko banderarekin eta SDJ Crew taldearen abesti batekin sartu nahi du ringean.

- Zer moduz sentitzen zara zapatuko boxeoko-ekitaldiaren aurrean?

Ondo, pozik, borrokatzeko gogoz. Txikitatik gustatu izan zait boxeoa eta zita garrantzitsua da niretzat.

- Nolako borroka izango da?

Hiru minutuko hiru round egingo ditugu. Ixa Rodriguez boxeolari profesionalak hartuko du parte ekitaldian eta hainbat borroka egongo dira gureaz gain.

- Adur Odriozola izango da zure etsaia. Ezagutzen duzu?

Bai, nire klasekoa da. Hiru urte daramatza boxeolari moduan entrenatzen eta ona izango dela pentsatzen dut, hiru minutuz bakarrik ikusi dut. Ezkertia da eta horrek abantaila ematen dio. Beraz, arlo hori entrenatzen dihardut, ezkeri baten aurka borrokatzeko. Bera jotzea zailagoa da ezkertia izanik, baina entrenatuz gero ohitu egingo naiz.

- Zein mailatan borrokatzen duzu?

Aste honetan haserre egon naiz kontu horrekin. Aratosteak izan dira eta asko jan dut, eta orain pisuarekin arduratuta nago. Pisaketa egiten denean 62 kg. pisatu behar dut gehienez eta 64 kg. pisatzen dut orain. Kiloak erraz kenduko ditudala uste dut. Gu-txi jan eta asko entrenatu behar dut egun hauetan.

- Nolako ibilbidea eduki duzu boxeoa munduan?

Txikitatik gustatu izan zait boxeoa. Klasean beti genbiltzan borrokan, klaseko indartsuena nor zen jakiteko. Gainera, bo-

xeoko pelikula asko ikusten nituen eta asko gustatzen zitzaizkidan. Gero, boxeoko guanteak lortu genituen eta lagun artean jolasean ibiltzen ginen, baina Inda Team gimnasioaren berri eduki nuen eta apuntatu egin nintzen. Urtebete daramat hor eta ordutik serioago hartu dut boxeoa.

Gogor entrenatzen hasi nintzen eta boxeoko-ekitaldi batean borrokatzeko aukera daukat orain. Oso pozik nago.

- Horrelako ekitaldi batean aritzea eragingarria da zuretzat?

Klubun arteko ekitaldietan borrokatu dut aurretik, baina ez dute epailerik edukitzen. Boxeoan aritu eta jende berria ezagutzeko saioak izaten dira. Beraz, boxeoko-ekitaldi batean borrokatuko dudana lehen aldian izango da. Bihar jende asko joango dela esan didate, Ixa ezaguna delako, eta pixka bat urduri nago.

- Zenbat aldiz entrenatzen duzu astean?

Orain ia egunero. Asteburuan bakarrik entrenatzen dut, baina astelehenetik egunera arte Asier entrenatzailearekin entrenatzen dut gimnasioan.



- Badaukazu eredurik boxeoa munduan?

Mohamed Ali, Mike Tyson, Manny Pacquiao eta Kerman Lejarraga. Euskal Herrikoa izanda, oso eredu ona da Kerman.

- Nolako boxeolaria zara?

Bizkorra eta basatia. Gure mailan ez daukagu pisu handirik eta indarra edukitzeak abantaila ematen dizu. Indarra asko entrenatu dut, baina teknika gehiago entrenatu beharko nuke orain. Non jo behar duzun ondo jakin behar da, ezin duzu indarra xahutu etsaiaren guantean jotzeko, adibidez.



IÑAKI ARANBERRI AIZPURUA

(2019-II-25)

“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”
EZ ZAITUGU SEKULA INOIZ AHAZTUKO.



BEHARTSUAK SOZIEDADEKO BAZKIDEAK

Eskualdean zientzia eta teknologian diharduten andra bila

Debabarreneko gazteen artean, bereziki nesken artean STEM (zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematikak) bokazioak sustatzeko ahaleginetan dihardute Debegesa Garapen Agentzian. Asmo horrekin, aipatutako arlo horietan lan egiten duten emakumeak "Debabarrena STEAM" izeneko proiektuarekin bat egitera eta Debabarreneko gazteen artean, bereziki nesken artean, bokazio zientifiko-teknologikoak pizteko ekimenetan parte hartzera gonbidatu dituzte. Azaldu dutenez, "zientzia eta teknologia arloetan diharduten emakume profesionalen lana agerian jarzea da helburua eta, era horretara, STEM bokazioak sustatzea Debabarreneko gazteen artean, bereziki nesken artean".

"Debabarrena STEAM" izeneko Debegesak sustatu du, Elhuyarrek lankidetzan. Proiektu horren bitartez, eskualde mailako estrategia bat landu nahi dute, "bokazio zientifiko-teknologikoak pizteko. Besteak beste, emakume zientzialari eta teknologoaren lana agerian jarri nahi da, gazteek gertuko emakume profesionalen erreferentak izan ditzaten". Egitasmoa Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu du, "Etorkizuna Eraikiz" programaren barruan.

Egitasmo honen baitan azterketa bat egin dute, analisis genero-ikuspegia txertatuz. Besteak beste ikasleei gai horiekiko duten interesari buruz galdetu diete eta, horrez gain, euren lanbide-proiektzioa nola



Emakume zientzialari eta teknologoaren lana agerian jarri nahi da.

ikusten duten ere jaso dute. Asmo horrekin prestatutako galdetegari 14 eta 15 urteko 550 ikaslek erantzun diote eta, Debegesatik azaldu dutenez, "azterketatik ondoriozta daiteke genero-estereotipo tradizionalak gazteen interesetan eragina dutela. Neskei gehien interesatzen zaizkien gaien artean gai sozialak (%51,37), kirolak (%46,67), eta medikuntza eta osasuna (%46,66) daude. Mutilen kasuan, berriz, kirolen inguruko interesa da nagusi (%78,68), eta zientzia eta teknologiaren ingurukoa, berriz, bigarren (%56,25)". Az-

terketaren emaitzak martxoaren 27an aurkeztuko dituzte Debegesak eta Elhuyarrek, egun horretan hasi eta hilaren 29ra bitartean egingo den ABIAN Debabarreneko Lanbide Heziketaren azokaren baitan.

Bestalde, proiektuarekin interesa duten emakume profesionalak Debegesaren webgunean (debegesa.eus) eman dezakete izena, izen-emate orria online betez. Eta zalantzak argitzeko edota informazio gehiago eskuratzeko, 943 82 01 10 telefonora deitu edo berrikuntza@debegesa.eus helbidera idatzi daiteke.

www.etakitto.eus

herriko **ALBISTEAK**
argazki **BILDUMAK**
BIDEOAK

WEB


AGENDA
KIROL-agenda eta emaitzak
ARGAZKI ETA BIDEOAK

www.etakitto.eus

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

CAPI
www.capiestetica.es



BERRIA!!!

BEGI
ingurunerako
tratamendua



LIFTING
tratamendua

BETILE
LUZAPENAK



LIFTING

LASER DEPILAZIOA

5 saioetarako BONOIA 99€

Hanka osoak + iztarreak
+ besapeak 95€

Hanka osoak 60€

Iztarreak+Besapeak 50€

Bularra+Abdomena 50€

Bizkarra+Lunbarra 50€

Ezpaina/Begitartea 10€

Zona/saioko 30€



ASTEBURUKO ARGAZKIAK ETA BIDEOA
GURE MEDIATEKAN IKUSGAI: etakitto.eus
argazkiak: Malen Illarramendi / Malen Jainaga





*felix morquecho*

Erabili dezagun!

Idazle ezagun bati orain dela gutxi zera irakurri nion: irakurle euskaldunok, denok, elebidunak ginela. Ez gaitzen engainatu, salbuespenen bat kenduta denok gara gauza gazteleraz aurkezten diguten zerbait ulertzeko. Alde horretatik badugu abantaila; gaitasuna edukita, zerbait ikusi, irakurri edo entzun nahi badugu edo ez, gurea da hautua. Hizkuntza bakarra ezagutzen dutenek ez dute aukera hori, eta seguru nago gehienek nahi izango luketeela. Azken urteetan Eibarko Antzerki Jardunaldietako informazioa egitea tokatu zait eta ikusleen aldetik bi egoera topatu ditut, besteak beste. Aurten bertan, antzerkira guztiz engantxatuta dauden batzuk zera esan zidaten: *“Denak ikusiko ditugu, euskaraz direnak izan ezik, ez dugu ulertzen-eta”*. Obra baten bukaeran, aldiz, beste batek zera esan zidan: *“Ni euskeraz ematen dituztenak ikus-tera nator”*. Argi dago argumentua, testua, antzezle edo zuzen-

Kontua izan daiteke hizkuntza batetik edo bestetik jotzea; baina, denak ulertzeko gai izanda, ez gaitzen hor geratu eta gozatu dezagun festibala

dariaz gain, hizkuntza badela irizpidea antzerki obra bat ikusteko. Lerro hauek irakurtzen ari bazara hizkuntza batean edo bestean ulertzeko aukera duen horietakoa zara, eta hasten ari diren Jardunaldiak aukera zabala jarriko digu aurrean egun hauetan. Komedia eta drama, zirku ikutua duten obrak ere, literatura klaseak burura ekarriko dizuten klasikoak, bizitza bera taula gainean jartzen duten lanak, umeentzat bereziki direnak eta dantza edo musika tartean sartzen dutenak ere azaltzen dira programan. Aukera egitean egunak eta ordutegiak ere tartean nahasten dira eta hautuaren ekuazioa ez da erraza izaten, baina ez gaitzen mugatu. Kontua izan daiteke hizkuntza batetik edo bestetik jotzea; baina, denak ulertzeko gai izanda, ez gaitzen hor geratu. Gozatu dezagun gure festibala. Juan Ortega lagunak beti esaten duen bezala *“erabili dezagun, existitzen jarraitu dezan”*.

*unai artetxe*

Julen

Gizartea gaixo dago. Oso. Iruditzen zait gizakiok ez garela oraindik gaixotasunaren larritasunarekin jabetu, baina ni arduratuta nago, eta zalantza dut honek guztiak atzera-bueltarik duen.

Julen. Julen txikia gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko. Julen koitadua hamaiketako garaian eta askarian. Julen. Julen, Julen.

Ume baten heriotzarekin sortutako espektakulu mediatikoa komunikabideen errua omen da, ez beste inorena. Halakoetan, gizakiok gizaki izanik, nahiago izaten dugu beste alde batera begiratu. Errazagoa delako norberari baino beste bati errua leporatu. Samurragoa delako norberaren zinismoa beste baten bizkar gainean jartzea. Oro har, ustez etsai faktikoen aurka egiteak barruak asetzen digulako.

Azken urteotan komunikazio bide berriak sortu dira. Hor daude sare sozialak, mezuak bidaltzeko aplikazioak, etabar. Eta horiek

Gizakiok gustokoa dugu morboa; aurkakoa esango dugu, baina gaixo gaude, eta ez dago hori sendatuko duen ez txerto ez pilularik

guztiak Komunikazioaren demokratizazioa ekarri behar bazuten ere, ez zait iruditzen horrela izan denik. Komunikabide gehienek Julen txikiaren heriotzarekin izandako jarrera sentsazionalista sare sozialetan norbanako askok eta askok izan dute.

Gizartea gaixo dago, eta iruditzen zait komunikabideez haratago doala, sare sozialetan irakurri daitezkeenak ere ez dutelako esperantza handiegirik ematen. Komunikazio bide berriak bai, baina zertarako? Gizartea sendatuko duen medikua da behar duguna.

Gizakiok gustokoa dugu morboa. Aldemeneoak zer egiten duen jakin nahi dugu. Alboan duguna gu baino hobeto bizi ez dela. Aurkakoa esango dugu, baina gaixo gaude, eta ez dago hori sendatuko duen ez txerto ez pilula ez homeopatiarik.

Tamalez, izango ditugu aurrerantzean beste Julen batzuk. Ea ordurako zerbait ikasi dugun.

Hodei Ezpeleta txapelkun 23 urtetik azpiko Urrezko Binakako Aizkolarian

Bihurriren semea, Jon Larrea bizkaitarra lagun zuela, nagusitu egin zen Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jokaturako bere mailako txapelketan. Aizkolarien esparruko egun handia izan zen, ur-

tero lez, Urrezko Binakako Aizkolaria Txapelketa jokoan izan zuena eta Hodeik beste urrats bat eman zuen bere ibilbidean. Berak eta Larreak 12 minutu eta 12 segundo behar izan zituzten euren lan-



Hodei Ezpeleta, lehenengoa ezkerretik hasita.

ak amaitzeko, bigarren sailkatuei (Oier eta Xuban Cañameres anaiak) minutu erdia ateratzeko. Aipaturakoez gain, Ezpeleta eta Larreak osaturako bikotea onena izan zen abiadura proban zein ariketa luzean. Txapelketan parte hartzen zutenen artean gazteena izateaz gain (19 urte ditu Hodeik), txapelketa horretan bere debuta ere egin zuen eibartarrak. Azken urtean aurrerapausu handiak eman ditu Ezpeletak: iaz jubenil mailako Euskal Herriko txapela jantzi zuen, 3. mailatik 2. mailara jauzi egitea lortu zuen eta, hori gutxi balitz, gaur egun Euskal Herriko 25 aizkolaria onenen artean dago (bera da gazteena euren artean). Gabon Zahar egunean ...eta kitto!-k banaturako Eibarko Kirol Sarien artean, herri-kirol modalitatean berak jaso zuen saria.



Asteburuan hasiko du emakumezkoen Avia Eibar Rugby taldeak Ohorezko B Maila

Euskal Ligako partidu guztiak irabazi eta gero, Ohorezko B Mailako faseari heltzeko ordua heldu zaie eibartarrei. Goreneko mailara igotzeko lehiaketa zaila dute Avia Eibarkoek aurretik, lehenengoz datorren denboralditik aurrera kategoria berri bat bezala jokatuko dena. Zortzi taldek (Andaluzia, Gaztela-Leon, Catalunya, Galizia, Madril, Valentzia, Euskadi eta Aragoiko federazioak ordezkatzeko) hartuko dute parte, bi taldetan banatuta: A taldean Iparraldekoak izango dira eta B taldean Hegoaldekoak. Avia Eibar A lehenengoan izango da, Galizia, Catalunya eta Gaztela-Leongoekin batera. Domekan Murallako galiziarrek hartuko dituzte Unben, hurrengo asteburuan Bartzelonara joango dira Buc/Ubaeri aurre egiteko eta, azkenik, Valladoliden izango dute hitzordua Salvadorren aurka. Egutegiarekin jarraituta, finalerdiak martxoaren 31n jokatuko dira, finala apirilaren 7an eta promozioa maiatzaren 12an eta 19an. Erronka zaila bezain interesgarriaren aurrean daude eibartarrak.

Gipuzkoako Duatloi Sprint Txapelketa izango da jokoan zapatuko Eibarko Duatloian

Etzi arratsaldeko 16:45ean hasita jokatuko da Eibarren eta inguruetan Euskal Herriko Duatloi Ligako hirugarren proba. Aurten 28. edizioa izango da jokoan eta Gipuzkoako Duatloi Sprint Txapelketa hartuko du probak. Ibilbidea eta distantzia azken urteotakoa izango da, hau da, 5 kilometro antxixiketan, 18 errepideko bizikletan eta, amaitzeko, aurreko zatiaren distantzia erdia, bi kilometro eta erdi, antxixiketan berriro. Boxak Untzagako plazan kokatuko dituzte eta parte-hartzaileek herriko kaleetan egingo dute korrika. Bizikletan egin beharrekoa, berriro, saihesbide edo bariantean eta Matsariako poligonoan osatuko dute.



Asola Berriko Sergio Rodriguez onena izan zen Aretxabaletako hiru-txirlo botaldian

72 bolarik hartu zuten parte Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren urrezko ezteiak aprobetxatuz jokatu beharreko lau tiraldi berezietakoen arteko lehenengoan. Euretako seik zortzi txirlo lurreratu zituzten eta, postuak erabakitzeko parrekoak eginda, gure herriko Asola Berri bolatokiko ordezkariak sailkapeneko lehenengo postuak eskuratu zituzten: Sergio Rodriguez nagusitu zen Lastur klubeko Mateo Guenaga markin-



narraren aurretik, eta Garikoitz Rodriguez eta Alex Campos eibartarrak hirugarren eta laugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren. Aretxabaletako Iñaxio Bengoak eta Elgeta klubeko Joseba Espilla markinarrak osatu zuten seikotea. Hurrengo tiraldia 50. Gipuzkoako txapelketako lehenengoa izango da eta hilaren 23an jokatuko da Elgoibarko San Pedron.

Apirilaren 8tik 13ra jokatu den Itzuliak lasterketa asko bizituko duten aldaketak izango ditu

784 kilometro, sei egunetan banatuta, eta 22 mendate puntuagarri izango ditu Euskal Herriko Itzuliaren aurtengo edizioak. Aurreko eguaztenean aurkeztu zuten proba Zumarragako udaltxean, herri horretan hasiko baita Itzulia eta, sei etapetako ezauzgarriak jakinarazteaz gain, antolatzaileek probari bizitasun gehiago emateko asmoz egindako aldaketak azpimarratu zituzten. Julian Eraso Itzuliko zuzendariak ezagutzera eman zuen,aldi berean, aurten amaitzen dela Eibarko Udalarekin lasterketa hemen amaitzeko hartutako konpromisoa: *"Elkarlan horri omenaldia egiteko oraingoan azken bi etapak amaituko dira Eibarren"*. Hurrengo urtean, beraz, Itzulia ez da Eibarren amaituko (azken urteotan moduan), baina bere etapa izan dezake Udalak horrela nahi badu.

Zumarragan astelehenean jokatu den erlojupeko lehen etapak 11,3 kilometro izango ditu. Antolatzaileen ustetan hor ikusiko dira lehen aldeak: *"Erlojupekoa azken egunetik lehenera pasatu dugu probari astindua emateko. Gainera, ez da aitzinetapa normal bat. Antioko igoera oso gogorra da"*, zioen Pedro Horrillo Itzuliko zuzendari teknikoak. 2,3 kilometroko tarte horretan batez besteko pendiza %9,7koa da eta 100 metroko tarte batean %21era heltzen da. Zumarragatik Nafarroako Gorraitzeraino eramango du tropela matitzeneko 149,5 kilometroko bigarren etapak. Azken kilometroetan izango du interes handiena: antolatzaileek sterrato-a aurkitu nahi izan dute, *"baina ez da hain gogorra izango"*. Ia bost kilometroko lurrezko bide zati bati egingo diote aurre txirrindulariek eta lau kilometro pasatxo izango dituen porlanezko beste zati bati. Indar-esprinta espero dute. Eguazteneko etapa Sarrigurenen hasi eta Arabako Estibalizen amaituko da, 191,4 kilometro tarteko. Itzuliko etapa luzeena izango da eta esprintean amaituko dela aurreikusten dute, *"haizeak izan dezakeen eragina ahaztu barik"*. Eguenean Gasteiz eta Bizkai-ko Arrigorriaga lotuko ditu tropelak, 164 kilometroko etapa-



Zumarragan egin zen Itzuliaren aurkezpen ekitaldiko irudia.

rekin. Hor izango da Itzuliko 1. mailako mendatea, Bikoitz Gane, helmugatik 40 kilometrora: *"Gero, Zaratomora igo eta handik hiru kilometroko jaitsiera izango dute zain, helmugaren bila"*.

Azken bi etapek, barixakukoa eta zapatukoa, Eibar bihurtuko dute protagonista, inoiz baino gehiago. Bosgarrenak Arrigorriaga eta Arrateko gaina lotuko ditu, ia 150 kilometroko distantziarekin. Igoera eta jaitsieraz jositako ibilbideak *"4.700 metrotik gorako pilatutako desnibela izango du"*. Azken urteotakoari jarraituta, Arrateko lehen igoera Matsariatik egingo dute, eta bigarrena bide klasikotik, errepidetik. Etapa horretan Morga, Natxitua, Bedarona, Arribinieta, Ixua, Trabakua eta Usartza mendateak gainditu beharko dituzte. Eibarren hasi eta amaituko den azken etapa, bestalde, Itzuliko gogorrena izango da. Kilometroetan motzena izanda ere (118,2), bigarren erdian Azurki (6,4 km, %6,8 batez besteko pendiza), Kortazar (5,2 km, %8,5) eta Asentzio (7,3 km, %5,1) kateatuko ditu. Aurretik San Miguel, Kalbario eta Elorrieta gainak lagako dituzte atzean. Kortazar izango da berritasun handiena: *"Soraluzen gora eta, tontorrera iritsi aurretik, Bergararako bidea hartuta. Igoeraren erdia asfaltozkoa da eta beste erdia porlanezkoa"*. Etapako azken bost kilometroak Eibarren barruan egingo dituzte, Toribio Etxebarria kalean amaitzeko. Etapan pilatutako desnibela aurreko eguneko parekoa da, ia 5.000 metrokoa.

Etapa guztietan denbora gainsariak egongo dira hiru lehenengoentzat: 10, 5 eta 4 segundokoak helmugan eta 3, 2 eta segundo batekoak etapa bakoitzean kokatutako esprint berezietan. Iaz hasi zuten sistemarekin jarraitzea egokitzen jo dute Julian Eraso eibartarra buru duten antolatzaileek.

Andoni Mayo bosgarren izan zen Euskadiko Txakurkros Ligako azken proban

Bera izan zen gure herriko Takuai Mushing Team ordezkari bakarra Muskizen jokaturako zortzi kilometro ibilbidean, 400 metroko desnibelarekin. Osorik jokatu zen, erdira murriztea aztertu ondoren (16 gradutik gorako tenperaturekin erdira murrizten dira txakurkrosak eta 20tik gora bertan behera lagatzen dira). Proba bat baino gehiago irabazi duen Dexter txakurarekin hartu zuen parte Andoni Mayok eta bosgarren amaitu zuen, irabazlearengandik minutu bat baino gutxiagora. Postu bikaina 65 parte-hartzaileen artean, kontuan izanda erori ere egin zela. Proba luzearen ondoren, beroarengatik bi kilometrora laburtutakoa jokatu zuen Zeus eta Ore txakurrekin, 11. postuan amaitzeko. Hurrengo hitzordua Nafarroako Berrioplanon izango dute Takuaikoek 16/17ko asteburuan.

Txirrindularien argazki eta testigantzen bilduma aurkeztu du Eibarren Juan M^a Tolinek

Udaleko pleno aretoan aurkeztu zuen atzo Emocion liburua Juan Mari Tolin argazkilariazarautarrak. Udaleko ordezkarietz gain, txirrindularitzako hainbat aurpergi ezagun ere izan ziren ekitaldian. Liburuak 20 txirrindulari ditu protagonista: Marino Lejarreta, Abraham Olano, Markel Irizar, Joseba Beloki, Joane Somarriba, Leire Olaberria eta Amets Txurruka, besteak beste. Azkeneko 25 urteetan Tolinek txirrindulari horiei ateratako argazkiak, 350 irudirik gora, eta azkeneko hiru urte eta erdian egindako elkarrizketak biltzen ditu liburuak. Tolinek 25 urte daramatza kamera eskuan Euskal Herriko txirrindularitza lasterketetan argazkiak ateratzen. Liburuak salgai dago www.tolin.es webgunean.



Klub Deportiboak antolatutako Mendi Jardunaldietako proiektzioen aurrean

Aurreko martitzenean, Mikel Lizarralde-ren hitzaldiarekin, hasi ziren aurtengo Jardunaldiek datorren astean une gorenetakoa biziko dute. Bilbao Mendifilm Festivaletik ekarritako bi proiektzio izango dira Coliseoan astelehenean eta eguaztenean (bietan 19:00etan hasita eta 5 euroko prezioan). Astelehenean Austriako Marten Persielen "The search for the wood" (11 miinutuko laburmetraia) eta herrialde bereko Josh Lowell eta Peter Mortimer-ek zuzendutako 100 minutuko "The Dawn Wall" izango dira ikusgai. Lehenengoan Kepa Acero surfariak izango du bere tokia; bigarrenak, bestalde, Yosemiteko Parke Nazionallean ia kilometro bateko hormatzarra eskalatzek berarekin ekarri zuena kontatzen digu, "mundu osoaren arreta bereganatzeraino heldu baitzen". Eguaztenean hiru izango dira eskainiko dizkiguten pelikulak: AEB-etako "Wallmapu"-k (6 minutuko) "Ama Lurraren hizkuntzaren orroa" erakutsiko du, Frantziako "In the starlight"-en (53 minutu) Paul Zizka argazkilariren lanbidea kontatuko zaigu eta "Everest green"-en (Frantziakoa eta 53 minutuko hau ere) alpinismoaren eta turismoaren arteko aldea bilatzen ahaleginduko dira.

Juanjo San Sebastianen "El viaje" hitzaldia izango da hurrengo asteko ekitaldi nagusia. Hilaren 20an, eguaztenean, 19:00etan hasiko den hitzaldi horretan mendizaleak egingo ibilbidea geureganatuko du, "mendiko



historia bat baino gehiago, emozio eta ikus-puntuena eskainiz". Domekan Zuhaitz Eguna ospatuko da Jardunaldien barruan, goizeko 09:30ean hasiko den eguneko egitarauaren barruan. Jardunaldiekin amaitzeko, hilaren azken egunean (31n, domekan), NeguTrail topaketa, bazkaria eta solasaldia izango da Uxue Fraile-ekin. Egun horretako mendi-lasterketa 09:00etan hasiko da (doan da) eta 14:00etan Deporren hasiko den bazkarian eta solasaldian parte hartzeko 20 euro ordaindu beharko da (kalamuakorrikalaritalka@gmail.com).

Astelena frontoiko lurra pulituko dute datorren domekako jaialdiaren ondoren

Domekan binakako txapelketaren finalerdietako lehen jardunaldiko partidua izango da Astelena, Altuna-Martija eta Iribarria-Zabaleta Aspeko bikoteen arteko norgehiagokarekin. Jaialdia osatzeko, lehenen-



Partidu nagusia jokatuko duen laukotea.

go partiduan Retegi BI-Galartza eta Jaka-Untoria bikoteen arteko lehia izango da eta amaitzeko, bestalde, promozio mailako finalerdietako lehen jardunaldiko irabazleen arteko izango da ikusgai: Elordi eta Oier Etxebarriak osatutako bikotea nor baino nor jardungo du Pello Etxebarria eta Garmendiak osatutakoarekin. Jaialdi hori azkena izan daiteke apirilaren amaierara arte, Eibar-ko enpresak frontoiaren lurra pulitu edo leuntzeko asmoa baitu, "kantxak pilota gehiegi gastatzen duelako partiduak luzatzen diren neurrian". Horretarako Udalaren baimena beharko dute, 2007tik berau delako frontoiaren jabea. Aspaldiko harrizko lurra 2001ean aldatu zuten azkenekoz, asfaltozkoa ipiniz, eta orain Aspek egokiagoa ikusten du gaur egun dauden aurrerapenez baliatzea pilotarako hobe izango den lurra ezartzeko.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Alaves - Eibar (zapateria 13:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Osasuna - Eibar (domeka, 12:00)

2. B Maila

Barakaldo - Vitoria (domeka, 17:00)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Ostadar (zapateria, 17:45)

Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Elgoibar (zapateria, 16:00)

1. Erregionala

Urki - Segura Goierri (zapateria, 18:00)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Getxo - Eibar (domeka, 18:30)

Euskal Liga

Danok Bat C - Eibar B (domeka, 18:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Eibar - Santutxu (domeka, 16:00)

FOBALL-ZALETUA

Azkena Adahi - Bar Areto (zapateria, 09:00)

Durango - Larragest (zapateria, 10:30)

Feredu - Ipur Sagard. (zapateria, 12:00)

Bar Txoko - JMR Errefor. (domeka, 09:00)

La Jara - Los Paisanos (domeka, 10:30)

Garaj. Garcia - Slow XOK (domeka, 12:00)

ESKUBALOA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Barakaldo (zapateria, 18:45)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Zeppelin - Eibar Eskubal. (zapateria, 17:30)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Donibane (zapateria, 16:30)

ERRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko B Maila

Avia Eibar - Muralla (domeka, 12:00)

SASKIBALOA

2. Mailarako Igoera Fasea

Avia Eibar - Laramendi (zapateria, 18:15)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - WP 9802 (barixakua, 21:45)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

CD Bilbao - Urbat IKE (zapateria, 14:20)

KIROL-AGENDA OSOA etakitto.eus HELBIDEAN

*asteburuko emaitza guztiak
 astelehen goizerako*


Urbat waterpolo taldeen plenoa

Urbat-Urkoen waterpolo klubeko ordezkari guztiak garaile izan ziren azken jardunaldian ere. Horrela, seniorretan gizonen taldeak 5-8 irabazi zuen Bilbon eta emakumezkoena 12-8 nagusitu zen Orbean. Jubenilek 10-17 irabazi zuten Portugaleten, kadeteek 5-8 Gasteizen eta, azkenik, infantilek 17-11 Orbean Bidasoaren aurka.



MALEN JAINAGA: Egunak luzatzen.

Hilaren 12an, martitzenean, IX. Euskararen Transmisioaren Mintegia egingo da Portaleko areto nagusian eta Gorka Moreno Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendariak ‘Euskara eta immigrazioa. Errealitatea eta usteak’ izeneko hitzaldia eskainiko du. Euskararen eta immigrazioaren inguruko hainbat gogoeta utziko dizkigu Morenok.



GORKA MORENO (Ikuspegiko zuzendaria):

“Etorkinen seme-alabek euskera ikastea da gure erronka nagusia”

- Zeren inguruan egingo duzu berba mintegian?

Euskera eta immigrazioaren gaia landuko dut, hainbat gogoeta mahai gainean jarriz. Eskolarizazio datuak ikusiko ditugu, adibidez, eta etorkinen seme-alaba gehienek D ereduan ikasten dutela ikusiko dugu. Hainbat ideia apurtzen saiatuko naiz.

- Usteetatik errealitatera alde handia dago?

Immigrazioari lotutako gaietan argi dago baietz. Etorkinek ez dakite euskera asko, baina errealitatea kontuan hartu behar dugu. Beste autonomia erkidegoetatik etorritako gehienek ez dute euskera ikasi, adibidez. Euskararen inguruan etorkinei besteei baino gehiago eskatzen diegula dirudi eta uste dut etorkin gehienek ez dutela euskera ikasiko. Gure erronka nagusia etorkinen seme-alabek euskera ikastea izango da. Helburua hori baldin bada, uste dut nahiko ondo goazela. Argi dago ez dutela gure seme-alabek bezala euskera ikasiko, etxean ez dutelako praktikatu, baina gauza bera gertatu zen beste hamarkada batzuetan Andaluziatik, Extremaduratik edo Gaztelatik etorritakoekin. Baliteke euskera maila okerragoa izatea etxean euskeraz egiten zutenekin alderatuta, baina hori hobetuz joan zen eta eurek ere euskera ikastea lortu genuen. Gaur egungo eta orain dela 30-40 urteko errealitatea antzekoa da.

- Jatorri, klase, behar eta izaera ezberdineko migratzaileak daude Euskal Herrian, baina orokorrean nolakoa da euren jarrerak euskerarekiko?

Ez daukagu Eibarko daturik, baina bai beste toki batzuetakoak. Ez dakit arazo larria den, baina guraso etorkinek batzuetan ez dute oso argi ikusten zein garrantzizkoa den euskera. Garrantzitsua da gure hizkuntza delako, baina ez hori bakarrik, euske-

ra igoera sozialerako tresna delako baita ere. Zure seme-alabek gure estratifikazio sozialean edo lan-merkatuan aurrera egitea nahi baduzu, euskera oso garrantzitsua da. Ezin dugu ahaztu euskeraren bidez administrazio publikoan lan egin dezakezula eta lan-baldintza hobekak izan ditzakezula. Esaten dudana gogorra dela eman dezake, baina etorkinekin ez da hain garrantzitsua euskeraz ikastea, oso zaila izan daitekeelako eta ikasteko aukera eta baliabideak izan behar dituztelako. Euren seme-alabek euskeraz ikastea da benetan jokoan dagoena. Euskerak daukan garrantzia argi utzi behar diegu guraso horiei. Datuak ez dira kezagarriak, baina euskeraren garrantzia azpimarratu beharko genuke, euskerak berebiziko garrantzia izango duelako etorkinen seme-alaben integrazioan.

- Hizkuntza ezberdinetako hiztunen artean euskera ‘zubi hizkuntza’ izan daiteke?

Gure errealitate soziolinguistikoa ikusita zaila ikusten dut. Gaztelaniak euskerak baino garrantzi handiagoa dauka EAEko egunerokotasunean. Euskerak zubi lan hori egin dezake eta euskeraz ikasten duen etorkinarekiko pertzepzioa beste modu batekoa izan daiteke, baina mugak zeintzuk diren jakin behar dugu. Euskera mugatua da, leku askotan gaztelera gehiago entzuten da, Eibarraren esaterako, baina euskerak ahalmen handia dauka.

- Zein pauso eman beharko liriteke euskeraren eta immigrazioaren inguruan?

Zaila da, eskola politketan, matrikulazioetan eta ereduak aukeratzeko orduan gurasoek aukeratzeko dutelako, baina Eusko Jaurlaritzak eta delegazio ezberdinek eragina izan dezakete. B eta D ereduak dira integrazioerako eskola-ereduak.

CAYETANO MENARGUEZ VEGARA

9. urteurrena: 2010-II-28



PAULA LAMARAIN ASTIGARRAGA

1. urteurrena: 2018-III-11



EZ ZAITUZTEGU INOIZ AHAZTUKO

– etxeokak –

Euren aldeko URTEURREN MEZA egingo da martxoaren 10ean (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokiari.



ANDER LIPUS
(aktorea)

“Unai Iturriagaren idazteko moduak umore beltz asko dauka”

Maitek eta Karlosek, Patricia Urrutiak eta Ander Lipusek, Jimmyren gorpua daramate hozkailu barruan. Lagun minak izan arren, inoiz ez diote galdetu nongoa den eta ez dakite non enterratu behar duten. ‘Hozkailua’ benetako adiskidetasunari buruzko istorioa da, Unai Iturriagak idatzi eta Manex Fuchsek zuzendutako antzezlan. Hilaren 10ean, domekan, edukiko dugu ikusgai 20:30ean Hezkuntza Esparruan.

- ‘Hozkailua’ izeneko antzezlanaren ekarriko duzue Eibarrera. Zer dago hozkailu horren barruan?

Sorpresa! (barreak) Jimmy daramagu hozkailuan, Maitearen eta Karlosen kolega. Gazte denboran Maite, Jimmy eta hirurok orduko punkaren muinera joan ginen, Londresera. Oso punkiak ginen, baina Londresen denbora bat egin ondoren Karlosek, nire pertsonaiak, bueltatzea erabakitzen du eta Maite eta Jimmy han geratzen dira. 22 urteren ondoren Karlosek Maitearen dei bat jasotzen du Hendaian hozkailu batekin dagoela esanez, eta barruan Jimmy dago. Ez dakite Jimmy nongoa zen eta bere gorputza enterratzeko bidai bat egiten dute.

- Punka aipatu duzu. Musikak garrantzia du antzezlanean?

Alde batetik, road movieak ematen dion klima dago, Asier Ituarte eman dion soinu-klima. Oso polita da, Keu Agirretxearen gitarrarekin atmosfera berezia sortzen delako. Bi pertsonaien bidaia da, iraganera edo etorkizunera, eurek ere ez dakite. Zer bilakatu diren ikusteko aitzakia ematen die Jimmyk. Bestetik, musika aldetik iraganera bidaia bat dago. Badago abesti garrantzitsu bat obraren amaieran agertzen dena, Baldin Bada taldearen ‘Bizi nahi dut’ abestia. Horrez gain sasoi abesti mitikoak abesten ditugu: Eskorbuto, Hertzainak, RIP... Oso ondo sartzen da gure sasoi irudikatze.

- Nolako sasoi izan zen?

Sasoi hortik gatz, baina gaur egungo istorioa kontatzen dugu. Atzera begirada da gaur egundik ikusita. Protagonistak punkiak ziren sasoi hartan eta punkia izateak bere ondorioak ze-

kartzan, munduan egoteko modu bat. Sasoi hartan kolega izatea oso gauza garrantzitsua zen. Maitek eta Karlosek kolegen bidaia egiten dute eta euren arteko berbak ez dira politak beti, demaseko gordintasuna dago euren arteko adiskidetasunean. Unai Iturriagak idazteko daukan moduak, gordintasun horrez gain, umore beltz asko dauka.

- ‘Francoren bilobari gutuna’ antzezlanaren egin eta gero, berriz taularatzen duzu Unai Iturriagak idatzitako testu bat. Gustora sentitzen zara bere idatziekin?

Unai eta biok belaunaldi berekoak gara eta konplizitatea dago bion artean. ‘Zaldi urdina’ deituko den obra berria dihardugu prestatzen, eta Igor Elortza eta Unai Iturriaga berriz jarri ditugu elkarlanean. ‘Hozkailua’ antzezlanean formatu txikiko gauza bat egin nahi genuela argi geneukan, bi aktoreekin Euskal Herri osoan ibiltzeko obra bat, eta 75 emanaldi eskaini ditugu dagoeneko. Iparraldera, Bilbora edo Iruñara joan gaitzeko, baina publikoa kontatzen dugunarekin identifikatzen da, oso hurbiletik ikusten du.

- Artificio eta apaingarri handi barik aktoreen lana nabarmentzen da?

Bai. Patricia Urrutia eta biok gaude taula gainean pertsonaia biak antzezten, hozkailu baten laguntzarekin bakarrik, inongo apaingaririk gabe. Elkarriketa asko dago eta nahiko arin pasatzen den obra da. Obra xumea da eta ideia horrekin egin genuen, pertsonaia nolakoak diren eta euren nabardurak ikusteko.

“Harria” liburua eta ikusentzunezkoa aurkeztuko ditu Palaciosek 13an


Martxoaren 13an aurkeztuko du Juan Antonio Palaciosek “Harria”, berak egindako argazkiekin osatu duen liburua, 19:00etan Portaleko areto nagusian. Ekitaldia, gainera, “Harria” ikusentzunezkoaren proiektzioa eskainiko dute. Argazkilaritza arloko sari ugari eskuratu dituen Palaciosek irudiei laguntzen dioten testuak Juan Manuel Uriarenak dira eta proiektzioan entzungo den ahotsa, berriz, Ernesto Barrutia aktore eibartarrarena. Portaleko



Jose Ramón Iruetagoiena “Izeta II”



Gorka Etxeberria



Joseba Ostolaza “Ostolaza II”

ekitaldia amaitu eta jarraian, nahi duenak Palaciosek batera Topalekura joateko aukera izango du, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan martxoaren 24ra arte ikusgai izango den erakusketaren

inauguraziora. Topalekuko argazkiak ohiko ordutegian ikusteko aukera izango da, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.




Giza irudiek antzerkia kaleratzen

Aurreko barixakuan bisitan etorri zitzaizkigun Bartzelonako MPC konpainiako kale-artistak, 42. Eibarko Antzerki Jardunaldien barruan antolatutako Giza Irudien XVII. Erakustaldia eskaintzera. Damian Costa (Uruguay), Jorge Balmaseda (Argentina), Fabian Duarka (Argentina), Karina Valderrama (Italia) eta Edwin Solache (Mexico) antzezleek, pertsonaia ezin ikusgarriagoen azalean sartuta, aho zabalik laga zuten Untzagan eta Toribio Etxebarria kalean eurek ikustera joandako jende guztia.

Nanoipuin gustokoena aukeratzeko botazioa zabalik dago

Udalak, herriko bi euskaltegiekin batera antolatutako Nanoipuin lehiaketara lanak aurkezteko epea otsailaren 24an amaitu zen eta orain botoak emateko unea da. Antolatzaileek esan dutenez, *"guztira 50 nanoipuin inguru jaso dira eta orain gustokoena aukeratzeko ordua ailegatu da. Ikusi www.eibarko-euskara.eus orrian aurkeztu diren ipuintxoak eta eman botoa gehien gustatu zaizunari martxoaren 24a baino lehen. Oso lan politak aurkeztu ditu jendeak: batzuk beldurgarriak, beste batzuk barregarriak, hunkigarriak ere badira tartean..."*. Gogoratu dutenez, bi sari banatuko dituzte: bat boto gehien jasotzen dituenarentzat eta bestea epaimahaiak aukeratzaren duenarentzat.



Andrea Garcia abeslari eibartarra garaile 'BaGo!az' en lehen saioan

Aurreko asteko eguaztenean ETB1an hasi zen BaGo!az talent show motako saioaren lehen programan Andrea Garcia abeslari eibartarra izan zen garaile. Horrez gainera, *"eibartar on legez"*, Ylenia Baglietto herrikidea aukeratu zuen laguntzaile gisa. BaGo!az Goazen telesailerako aktoreak biltzen dituen saio musikala da eta aurtien 3. denboraldia beteko du. Eguaztentean 22:30ean eta barixakuetan 21:00etan ikusi ahal izango dugu ETB1ean. Aurkezle lanak Zuriñe Hidak egingo ditu, eta Jabi Elortegik zuzendu. 15 abeslari izango dira lehian eta zazpi eurekin jardungo duten prestatzaile ezagunak: Anjel Alkain, Xabier Saldias, Ylenia Baglietto, Maria Amolategi, Alex Sardui, Iker Villa eta Maria Redondo iazko edizioko irabazlea. Lehen saioa Andrea Garcia artista gazteak Iker Villarekin Beyonceren "Runnin" abestu zuen eta, zalantza barik, lan bikaina egin zuen eibartarrak.

Musika Bandaren emanaldia

Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseoan. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta, honako piezak joko dituzte: "Cuadros de una exposicion" (promenade, M. Moussorgsky), "El Principe Igor" (gerrako dantzak, A. Borodin), "Bocetos del Caucaso" (1. suitea, I. Ivanov) eta "El lago de los cisnes" (suitea, P. Tchaikowsky).




Meditazio ikastaroa

Martxoaren 15ean hasiko den meditazio ikastaro teoriko-praktikoa antolatu dute Bidebarrieta kaleko (60. zenbakian) Reiki Zentroan eta meditazioa ezagutu nahi dutenentzat dohaineko saioa egingo dute egun horretan, 18:00etan hasita. Ikastaroak jarraipena izango du, barixakuero ordu berean. Izena emateko edo argibideak eskatzeko 609020609 telefono zenbakira deitu.



Biodantza klaseak

Untzagako jubilatuek etxekoek Biodantza klaseak antolatu ditu martitzen goizetarako, 10:00etatik 11:30era. Mentxu Arjonillak emango ditu klaseak, datorren martitzenetik aurrera eta izena eman nahi duenak zentruko bulegora joan beharko da. Klaseen prezioa 15 eurokoa da.



Antzerki Jardunaldia

PÉREZ, EL RATONCITO Titirigui **haurrentzat**

MARTXOAK 9 zapatua 17:00an Coliseoa

Ez da haurrentzako antzerki ohiko lana 4 urtetik gorakoentzat prestatutako ikuskizuna. Haur antzerkigintzan arrakasta handiak lortu dituen Titirigui konpainiak antzezleez gain, animazioa eta teknologia berriak erabili ditu "egoera zailen aurrean erabakiak hartzen ikasi behar dugu" mezua zabaltzeko. Alfonsito XIII.a erregeari zortzi urte zituela erori zitzaion hortzaren inguruan Aita Colomak idatzitako ipuinean oinarritzen da. Antzezlanean El Pero hiri-sagu gaztearen istorioa kontatzen da: egunero alboko gozo-dendara sartuko da, Ratita Bonita bere lagunarekin, euren bere bizia arriskuan jarritz, euren lagunentzat gozokiak lortu ahal izateko. Baina, halako batean, hortzak izorratzen ari zaizkiela konturatuko dira... eta arazoari irtenbidea aurkitzen saiatuko dira.



HOZKAILUA Artedrama **drama**

MARTXOAK 10 domeka
20:30ean Hezkuntza Esparrua

Lana benetako adiskidetasunari buruzko istorioa da, 80. hamarkadan abiatuko dena. Sasoi hura nahiko beltza eta gogorra izan zen, mobilizazioak eta in-konformismoa eguneroko gaiak bihurtuta. Elkar ikusi gabe hainbat urte pasa ondoren, Jimmyren heriotzak Karlos eta Maite elkartzen ditu berriro, eta herririk herri ibiliko dira alboan hozkailu zahar bat eramanetz: bertan garagardo lata batzuk eta hildakoaren gorpuzkiak, bere herrian hilobiratuko zutela hitzan eman ziotelako. Baina nongoa zen galdetzea ahaztu zitzairen. Bien arteko harremana kolokan jarriko duen bidaian abiatuko dira horrela.



SOLITUDES Kulunka

MARTXOAK 14 eguna
20:30ean Coliseoa

UN POYO ROJO Poyo Rojo **komedia**

MARTXOAK 15 barixakua
20:30ean Coliseoa

Argentinan hainbat denboraldi eta Hegoamerika eta Australian zehar hainbat bira egin ondoren, zuzenean Frantziatik gurera helduko da Un Poyo Rojo konpainia izen bereko ikuskizunarekin. Dantza eta antzerki fisikoarekin osatutako ikuskizun barregarriaren aurrean gaude, gaitasun espresibo harri-garriaz baliatuta. Lanean bi gizon ez ohizko oilar joko batean jardungo dute gimnasio batean, euren indarrak neurtuz borroka arteak, hip-hop, vogueing edo balleta bezalako disziplinak garatuta. Hain modu trebean eta azkarrean jorratzen dituzte mundu guztian lortutako arrakastak ez digula harritu behar.




mozorroak

Hitzik gabeko mozerro antzezlan honek istorio xumea kontatzen du: agure alarguna bere seme eta ilobarekin bizi da, eta gazteak ez dira ohartzen aitonaren behar oinarrikoenaz: konpainia behar du. Zoriontsu izango litzateke karta jokoan, baina ez du norekin. Horregatik, kalean bilatu behar du norbait... eta prostituta hasiberria ezagutzen du. Kulunkakoek mutur emozional batetik bestera eramaten dute ikuslea, barre algaratik estutasunera, esaterako. Emozioak eragiteaz gain, Max Saria irabazitako ikuskizunak bakardadea, inkomunikazioa eta aurreiritziak zoriontasunaren bidean zenbaterainoko oztopo gaindiezinak diren erakusten digu.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena



Raid Pandemonium emanaldia domekan ELGOIBARREN

Domeka eguerdian, 12:00etan, estreinatuko dute Elgoibarko Herriko Antzokian "Raid Pandemonium" dokumentala. Motorra eta elkartasuna lotzen dituen ekimenaren berri emango duen proiektzioa ikusteko 2 euro ordaindu beharko da eta diru hori Diagnostikorik Gabeko Gaixotasunak dituztenak batzen dituen Elkarteari emango zaio.



Sagardo Eguna ospatuko da zapatuan ERMUAN

Etzi VI. Sagardo Eguna egingo dute Ermuan, goizean hasi eta gauera arte prestatutako egitarauarekin. Eguerdiko 12:30etik 14:30era Txotx!-a izango da, Mintzotz ekitaldiarekin batera. 18:30ean Amaitu Arte Txotx! hasiko da eta, azkenik, 22:00etan Maskaradun DJ-ak musikaz girotuko ditu egunaren azken orduak.

hildakoak

- Iñaki Oregi Epelde. 48 urte. 2019-II-28.
- Fabian Miñana Rodrigo. 83 urte. 2019-III-2.
- Paco Revuelta Revuelta. 78 urte. 2019-III-2.
- Damiana Mandiola Ansuategi. 84 urte. 2019-III-2.
- Lidia Mandiola Ansuategi. 83 urte. 2019-III-2.
- Jesus Vazquez Feijoo. 68 urte. 2019-III-3.
- Eugenia Uriarte Larrinaga. 91 urte. 2019-III-3.
- Juanjo Cruz Godoy. 56 urte. 2019-III-4.
- M^a Carmen Urizar Lejardi. 90 urte. 2019-III-5.

jaiotakoak

- Laia Ibarzabal Zulaika. 2019-II-25.
- Julen Lizarralde Soria. 2019-III-1.
- Nora Deza El Hafidi. 2019-III-2.

farmaziak

- Eguena 7
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Barixakua 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Zapatua 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 10
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Astelehena 11
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Martitzena 12
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 13
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 14
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Barixakua 15
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

2	5	9	3	8	4	1	6	7
6	1	8	9	7	2	5	3	4
4	7	3	5	6	1	8	2	9
5	4	2	7	9	6	3	8	1
7	3	1	2	5	8	4	9	6
9	8	6	4	1	3	7	5	2
8	9	4	6	3	7	2	1	5
3	6	7	1	2	5	9	4	8
1	2	5	8	4	9	6	7	3

			4	8		9	5	
			1		6			4
	4					6		7
9							7	6
		2				3		
7	6							2
1		7					2	
5			3		2			
	9	6		1	5			

Eguena 7

IKASTEN

10:00. "Arte y genero" hitzaldia, Marion Cruzaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroen entsegua 18:00etan hasiko da).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

18:30. "Klima aldaketaren inpaktuak Euskal Herrian", euskeraz, Elisa Sainz de Murieta (Basque Centre for Climate Change-BC3) eskutik. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "La luz oscura" (Producciones El Brujo). 15 euro (10'5 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparruan.

Barixakua 8

GREBA FEMINISTA

00:00. Hasi da Greba Feminista.

08:00. Emakume ikasleen martxa.

10:30. Kaleak hartu (ez mixtoa).

12:30. Elkarretaratzea: "Bizitzak erdigunera!" (mixtoa, emakumeak aurrean).

13:00. Pikete Feministak (ez mixtoa).

14:30. Topa eta bazkari autogestionatua (ez mixtoa).

17:00. Zaintza tailerra (ez mixtoa).

18:30. Irradaka dantza tailerra (ez mixtoa).

20:00. Manifestazioa: "Heterokapitalismo patriarkalari planto!" (mixtoa, emakumeak aurrean). Ondoren, ekitaldia eta akelarrea.

Zapatua 9

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00. "Perez, el Ratoncito, no nace, se hace" (Titirigui). 5 euro. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Small Foot". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

Domeka 10

KONTZERTUA

12:30. Eibarko Cielito Musika Banda. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

ANTZERKIA

18:30. "O me atiende ya, o me voy" antzezlan, Asteklima Euskadiko Klima Aldaketaren Astearen barruan. Doan. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Hozkailua" (Artedrama). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparruan.

Erakusketak

Martxoaren 8ra arte: "EMARIAK", EMAKUMEEK HISTORIAN ZEHAR EGIN DITUZTEN EKARPENEN BILDUMA (Topaleku)

Martxoaren 13ra arte: "ITSASPEKO BIHOTZAK ARETO LITERARIOA" (Portalea)

Martxoaren 27ra arte: "GURE MUNDUA ERALDATZEKO 17 HELBURU" (Portalea)

Martxoaren 31ra arte: "EIBARKO BELOMOTORRAK" (Eibarko Armagintzaren Museoa)

Astelehena 11

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatu eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen Istorioak: Chavela Vargas. Dinamizatzailea: Patricia Perez Coto. Pagatxaren eskutik. Sarrera doan. Portalean.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. "The search for the Woo" (Marten Persiel) eta "The Dawn wall" (Josh Lowell&Peter Mortimer). 5 euro. Coliseoan.

Martitzena 12

MINTEGIA

09:00/14:00. Euskararen Transmisioaren Mintegia. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Portalean.

IKASTEN

10:00. "Soinu bandak edo nola egokitu den musika klasikoa" hitzaldia, Marina Lertundiren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18:30. "Komunikazioa eta sare sozialak" ikastaroa. Portalean.

DOKUMENTALA

19:00. "Una verdad muy incómoda: ahora o nunca", Asteklima Euskadiko Klima Aldaketaren Astearen barruan. Doan. Coliseoan.

Eguaztena 13

HITZALDIA

18:00. "Margaret Atwood: el cuento de la criada y mucho mas", Josune Muñozen (Skolastika) eskutik. Portalean (1-2 batzartokian).

AURKEZPENA

19:00. "Harria" Juan Antonio Palaciosen ikusentzunezkoa eta liburua. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. "Wallmapu" (Ben Sturgulewski), "In the starlight" (Mathieu Le Lay) eta "Everest green" (Jean-Michel Jorda). 5 euro. Coliseoan.

Eguena 14

IKASTEN

10:00. "Giza eskubideak European, Estrasburgo eta Luxenburgoko" hitzaldia, Juanjo Alvarezaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroen entsegua 18:00etan hasiko da).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola emateko saioa, odol-emateentzat. Anbulatorioan.

BATZARRA

19:00. ...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzar Nagusia (2. deialdia 19:30ean). Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Solitudes" (Kulunka Teatro). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparruan.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ELIANA, zapatuan urtiak beteko dozuzelako. Besarkada haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, IBANE, zure 4. urtebetetzian. Osaba Ibon eta izeko Yoliren partez. Musu haundi bat, politta, bihotzez.




Zorionak, MARKEL!, bixar 6 urte beteko dozuz-eta! Musu potolua famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ANE, atzo 9 urte bete zenduazten-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, EIDER!! Oso ondo pasa zure egunian. Musu haundi bat danon partez. Baita Ototiton partez be.



Zorionak, IBAN, astelehenian 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MALEN Gisasola Fernandez, bixar 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IBAI, bixar gure printzeak lehen urtetxua beteko dau-eta! Millioi bat musu famelixaren eta, batez be, Uxueren partez!!

(2 ARETOAN)
9an: 19:00

"La Traviata"

Zuzendaria:
Giuseppe Verdi



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
9an: 22:30 (2 Aretoa)
10ean: 20:00

"Maria, reina de Escocia"

Zuzendaria: Josie Rourke



(2 ARETOAN)
9an: 19:45 (1 Aretoa), 22:30 (1)
10ean: 17:00, 20:00
11n: 20:30

"Una cuestión de género"

Zuzendaria: Mimi Leder



(ANTZOKIAN)
9an: 17:00 (1), 19:45, 22:30
10ean: 17:00 (1 Aretoa), 20:00
11n: 20:30 (1 Aretoa)

"70 Binladens"

Zuzendaria: Luis Serra



(ANTZOKIAN)
9an: 17:00 (2 Aretoa)
10ean: 17:00

"Kika Superbruja"

Zuzendaria: Wolfgang Groos



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisu merkea salgai Santo Domingo de la Calzada erdigunean. Bista ederrak. Kontzeptuko. Tel. 675-803734.

1.2. Errentan

– Mutila eskaintzen da bi logela baino gehiago dituen pisua alokairuan hartzeko. Tel. 632-569245.
 – Buhardila alokatzen da Txontan. Bosgarren soilaruan, igogailurik gabe. Aukera ona. Tel. 626-144098.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 612-201719.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. Tel. 627-820417. Dolores.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai Urkizun. 70 m², komunarekin. Arkitektura-estudioa edo aholkularitza bulegoa jartzeko edo hizkuntza-eskolak emateko egokia. 70.000 euro. Tel. 661-377537.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Ipuruako dorreetan. Auto handi baterako. Prezio onean. Tel. 943-700173 eta 608-464144.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakume gaztea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-833469.
 – Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-628950.
 – Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-704643.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 643-407562.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 602-027589.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 612-296098.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-087760.
 – Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-733573.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-039241.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 617-014938.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-035973.
 – Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-208107.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 616-296731.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-450354.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-603259.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Tel. 631-906590.
 – Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-374783.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gaeutan ere. Erreferentziak. Tel. 632-098382.
 – Emakume euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 669-243901.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 631-418130.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-082156.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita gaeuz ere. Tel. 688-959575.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.
 – Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-464072.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-374471.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 628-529252.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lan egiteko. Tel. 643-398596.
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 680-305891.
 – Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-492519.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-576630.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 675-617892.
 – Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Tel. 612-201719.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 612-463096.
 – Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-470506.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 678-112785.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-094780.
 – Gizona eskaintzen da garbiketarako egiteko eta eraikuntzan edo pintura lanetan jarduteko. Tel. 603-209416.
 – Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-258718.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-921780.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 644-558390.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-063561.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-881161.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 660-140707.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia. Ordu-ka. Tel. 667-060292.

4.2. Langile bila

– Saltzailea behar da arratsaldean (lanaldi erdian) lan egiteko. Eraman curriculum-a Closet dendara (Estazio, 10).

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– 2. Batxilergoko ikasleak ingeles klaseak behar ditu. Tel. 634-926030.
 – DBH 4ko ikasleak laguntza-klaseak behar ditu hizkuntza- eta irakur-gaietarako. Tel. 652-712639.

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Hilaren 17ko Magiaren Galarako (17:00etan) zazpi sarrera saltzen dira. 12,60 euro bakoitza. Tel. 669-186674.
 – BH Fitness Astra H 286 bizikleta estatikoa salgai. la berria. Entrenamendu kardiobaskularrerako pantailarekin. 85 kilorainoko erabiltzailearentzat. 200 euro. Tel. 697-288990.

6.2. Eman

– Artzai txakurkumeak oparitzen dira, ondo zaintzeko. Tel. 695-716229 eta 943-203205.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
 publizitatea@etakitto.eus

Hyundai IONIQ Gama

Autoz mugitzen uzten ez dutenerako



hibrido-entxufagarria

hibridoa

elektrikoa

Ahaztu itzazu hiri handietako kutsadura-protokoloak IONIQ-ekin. Beste inork egin ezin duena egingo duzu zuk: hiri-erdigunetik nola mugitu aukeraturako duzu, **Hyundai IONIQ Gama** delako hiru teknologia eskaintzen dizkizun bakarra: hibridoa, elektrikoa eta hibrido-entxufagarria. ECO bereizgarriarekin **Hyundai IONIQ hibridoa** duzu. Gidatze ekonomikoaz gozatuko duzu, eta emisio baxuekin. Zero emisio bereizgarriarekin **Hyundai IONIQ hibrido-entxufagarria** duzu, kotxe hibridoaren eta elektrikoaren onena batzen duena. Edo, nahiago izanez gero, **Hyundai IONIQ elektrikoa** ere baduzu; emisiorik gabeko gidatzea eta 280 kilometroko autonomiarekin.

Hyundai IONIQ Gama 20.990€-tik aurrera
3.000€-ra arteko diru-laguntzak kudeatzen ditugu Eusko Jaurlaritzaren Renove Planarekin

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARRAKO
WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

HYUNDAI

8 URTE / 200.000 KM
GARANTIA DE BATERIA

5 URTE
BERMEEA MUGARIK GABE

Hyundai Ioniq Gama HEV: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 103-106. Kontsumo konbinatua (l/100km): 4,5-4,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO2 emisioak (gr/km): 84-85 NEDC korrelatu zikloaren arabera lortutakoak. Hyundai Ioniq EV Gama: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 0 erabileran. Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 115. Autonomia: 280 Km*. Hyundai Ioniq PHEV: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 26 erabileran.

Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 117. Kontsumo konbinatua (Wh/km): 1,1. Autonomia modu elektrikoan: 63 Km*

PSP gomendagarria Penintsulan eta Batsanetan Ioniq 1.6 CDI 103,8kW (141CV) DT KLASA (20.990€) modelorantz. BEZ, garrasia, merkaturazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldaketa Plana aplikatu daitezke. Hyundai berri bat erosi baino 6 hilabete lehenago gutxienez, eroslearen titulartasunpean erabiltako auto baten truke. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuekin finantzatzen diren berri partikularentzat, Banco Cetelem, S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin. Finantziario finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Finantziarioari lotutako gastuak (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak) ez daude barne; horiek www.hyundai.es/configurador web-ean kontsultatu daitezke. 22.390€ finantzatu ez duten bezeroentzat PSP gomendagarria. Eskaintza 2019/02/28ra arte da baliokoa. Ikusten diren modeloak: IONIQ Style hibridoa, IONIQ Style hibrido-entxufagarria eta IONIQ Style elektrikoa. Mantenimendua autoaren finantziarioari lotuta. Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien kilometraje-mugarik gabeko 5 urteko eta tentsio altuko bateriarantz 8 urteko edo 200.000 km-ko (beheago gertatzen dena) berme komertziala Hyundai sare ofizialean salduko ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporteen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendua eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es helbidean (*Autonomia ofiziala WLTP Gidatze Ziklo Berriaren arabera. Egiazko autonomia gidatze-estiloak, egoera klimatikoak, errepidearen egoerak eta aire girotuaren edo berogailuaren erabilera baldintzatuko dute). Kontsultatu Eusko Jaurlaritzaren Renove Planaren baldintzak hemen: www.eve.eus.

· Eibarren egindako markak

· Moda

· Etxeko osagarriak

· Yoga:
"Yoga + Jarrera-Adimena"
"Jarrera berregokitzea"

· Pilates Essential:
"Lur eta aireko fusioa"

· Urtebetetzeak
· Formakuntzak
· Dastatzeak
· Hitzaldiak
· Ekitaldi korporatiboak


Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

helmet house
CONCEPT STORE

moments
with
a story
behind



**Eibarko
Zuatzu Klinika**

EMAKUMEA ZAINTZEN ESPEZIALISTAK

Ginekologia.
Obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Titietako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Gauzarik garrantzitsuena jokoan dagoenean, edonora joateko prest zaude.

Baina, batzuetan, nahikoa da metro batzuk ibiltzea.

**Eibarren gaude, Urkizu pasealekuko 11. zenbakian.
Zain gaituzu gure kontsulta eraberritu berrian.**

 **943 121 021**


ZUATZU
KLINIKA

www.clinicazuatzu.com